

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2020-ABENDUAREN 4A-423.ZENBAKIA

KARKARA

ELI HUEGUN

AIAR GAZTEA SENATUAN



PUBLIZITATEA



22, 26, 28,
49, 55 eta 60
eserleku dituzten
literadun autobusak
ditugu.

Bidaiatu eta ezkontzetara edo
sagardotegira joateko.

**Ubegun industria gunea, 4
AIA-ORIO**
943-13 28 93 · 656 78 29 99 (Gabino)
Fax-a: 943-89 05 62
alustiza@autocaresalustiza.com



Azkue

Olaskoegia z/g
AIA-ORIO
943-13 04 38

ANORGA TXIKI, S.L.

KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
www.cristaleriaanorgatxiki.com
943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak

arkaitz taberna

••• orio •••

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

*Terraza ederrarekin
giro ezin hobea*

abeslari kalea 6 · 943-83 16 57

edaritegia

Antilla

Abeslari kalea, 2
ORIO
943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitartekoak

Pelotari, 5 · ORIO
943-83 00 34
autolan13@hotmail.com



AUTO - LAN C. B.



Azkue

karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
AIA-ORIO
943-83 51 86



Zerbitzu teknikoak
24 ordu

fontana

iturgintza

iturgintza · gasa · berogailuak

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoien instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dubxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arantzale kalea, 3 · ORIO
fontana-jul@hotmail.es
www.fontaneria-fontana.com
943-53 98 88 · 661 26 28 28



2020-21

TRX Xpress Ostirala 18:45

+Info : 943894428 / orio@bpxport.es

BODEGAS

Gailur

01307 BANCOS de EBRO
Tel./Fax: 943 40 91 58
www.bodegasgailur.com

Arabar Errioxa

ZUDUGARAI



Gabriel's Tradición
SECTORIALES DE ORIGEN

Tel.: 943-83 03 86 · Fax-e: 943-83 59 52
txakolizudugarai@euskalnet.net · www.txakolizudugarai.com



KARKARA 423

2020-ABENDUAREN 4A
AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
GLORIA MARIN

Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Aiora Larrañaga Solaberrieta
Edertasun ereduaren iltzea
- 6 **Hitz tantak** Iñigo Gaiton
Marisa Arruabarrena
- 8 **Izpiak eta hizkiak** Iñigo Gaiton
Ezin jakin
- 10 **Gutunak**
- 14 **Oroimenaren kutxa** Iñaki Iturain
Euskal kantu eta ereserkiak
- 17 **Herrian galdezka**
- 18 **Elkarrizketa** Aiora Larrañaga Solaberrieta
Eli Huegun: Beharrezkoa da erabakiak hartzen diren foro guztietan egotea, herritarrentzat erabilgarriak izan nahibadugu
- 26 **Erreportajea** Aiora Larrañaga Solaberrieta
Indarkeria matxistaren (h)egiak aztergai
- 28 **Bazkide kluba**
- 29 **Erreportajea** Iñigo Gaiton
- Haize berria herri kiroletan*
- 33 **Moila bazterretik** Xabier Etxeberria
Pasako da
- 34 **Akuilua hartuta** Orio Hezkuntza Herria
Haurren heziketa guztion ardura
- 35 **Nire honetan** Amaia Urbieta Arruti
Sortu dira besteak
- 36 **Ikasleak idazle** Orioko Herri Ikastola
- 37 **Osasuna** Libe Garmendia
Gabonetan, oreka aurkitzea gakoa
- 39 **Euskara** Amaia Olazabal
Euskaraldia, Euskaltegiko nire txokotik
- 40 **Albiste laburrak**
- 42 **Plazan bazan**
- 44 **Agenda**
- 45 **Zerbitzuak**
- 46 **Hasi bertsotan** Alaitz Roteta

KARKARA



TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus
Lehendakaria
Rikardo Uzkudun

Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga Solaberrieta
Erredaktore taldea
Onintza Aiestaran
Onintza Lete Arrieta
Elizabete Manterola
Iñigo Gaiton
Rikardo Uzkudun
Amaia Urbieta Arruti

Diseinu arduraduna

Ane Azkue
Publizitatea
Leire Martija
Zenbaki honetako kolaboratzaileak
Iñaki Iturain
Xabier Etxeberria
Orio Hezkuntza Herria
Libe Garmendia

Amaia Olazabal
Banatzzaileak
Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-346/90
ISSN: 1132-1105
Tirada: 3.450 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO
udala

PUBLIZITATEA

Carmen eta Txomin
ARRAINDEGIAK



TXOMIN ARRAINDEGIA
Eusko Gudarien kalea, 44
943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA
Arizaga kalea
943-83 05 37

Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09

GARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com

IGLESIAS SARRAILAGILEAK

iglesiascerrajeros@yahoo.es
www.iglesiascerrajeros.com
Erribera kalea, 14 · ORIO
637 72 33 08

24orduko zerbitzua

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

ITZIAR KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03

Joseba
ARROZTEGIA · CARPINTERIA

ATEAK
ZOKALOAK
ARMAIRUAK NEURRIRA
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARROZTEGIA OROKORREAN

687 683 427
josebaarotza@gmail.com

KAIOA

kaioa_denda
www.kaioa.es



Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44

PIZZERIA KALETA

%100 etxean egina

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46



K·U·K·U·A·R·R·I
ELEKTRIZITATEA

943-10 01 81 · 640 28 13 08
Zigordia, 52 behea C · ZARAUZ
kukuarri@kukuarri.com

INDO

Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa

generoa

garraioak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44



Edertasun ereduaren iltzea



AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Lagun min batek abesti sorta bidali zidan pasa den asteburuan, ezustean, hainbat urtez elkarren berririk izan gabe egon ondoren. Sorpresa atsegina izan zen, gaztaroa eta COVID-19a existitzen ez ziren garaiak ekarri zizkidalako gogora. Kantuak entzuten ari nintzela, ordea, ohartu nintzen gazte garaiko une atseginenetan ere loditasunaren iltzea barruraino sartuta izan nuela. Agian batzuei hutsala irudituko zaie, baina jende askoren autoestimuan kalte handia eragiten duen gaia da edertasun ereduarena; ezarritako normaltasunetik noizbait atera direnek ulertuko dute zertaz ari naizen. Gaur egun lasaiago hartzen dut gaia, eta osasun irizpideak kontuan hartzen saiatzen naiz. Gainera, uste dut gizarteaz zabaltzen ari den mugimendu feministak eta *body positive* mugimenduak ate asko ireki dituela arlo horretan. Topmodelen garaian gazte izan nintzen ni, ordea, eta zaila da nork bere gorputza onartzea, inguruak onartzen ez duela ikusten duenean.

Gaztetxoa nintzenetik etengabe pisua jaisteko saiakerak egiten dihardut; garai batean 38 tailako praktetan sartzea izaten nuen helburu, eta uste dut hilabete gutxi batzuetan lortu izan nuela. Dena dela, Senegalera eginiko lehen bidaian argi ikusi nuen edertasun eredu gizarate egitura bat dela, eta guztiz aldatzen dela kultura batetik bestera. Konplexuz beterik joan nintzen ni lehen aldiz hara, bertakoek bezalako gorputz lirain eta argalik ez nuelako, baina harrিতuta geratu nintzen emakume helduak, handiak eta indartsuak ere edertzat zituztela ohartu nintzenean.

Ikuspegiaren arteko talka horrek Fatema Mernissi soziologo eta feminista marokoarrak *Mendebaldeko harema* liburuan egindako hausnarketa dakarkit gogora. Honakoa zihoen: “Herrialde musulmanetan bere boterea espazioaren erabilerarekin ezartzen du gizonak (emakumeari plaza publikoa galaraziz), eta, haren aldean, mendebaldekoak denbora eta argia manipulatu dituzte”. Hala, Mernissik uste zuen “mendebaldeko harema 38 arropa neurria” dela; hau da, emakumea kontrolatzeko denbora eta edertasun eredu erabiltzen dituela gizarteak, argalak eta gazte itxura ez duten emakumeak ikusezin bihurtuz eta baztertuz. ■

**ZAILA DA NORK BERE
BURUA ONARTZEA,
INGURUAK ONARTZEN
EZ DUELA IKUSTEN
DUENEAN**



BODEGA K5

Oparitu bertakoa!

Opari kaxak online dendan eskuragarri: www.bodegak5.com

Marisa Arruabarrena

TESTUA ETA ARGAZKIA: IÑIGO GAITON

Ezkutuan dagoena eman du argitara Marisa Arruabarrenak, hamahiru urtetan idatzitako poemak liburu mardulean bilduta. Estreinako lanean egiten dituen aitortzen artean, “bat-batekoaren oinordekoa” dela esaten dio irakurleari; erantzunak ere halaxe eman ditu elkarrizketan, brastakoan, hizkera bizi bezain jauzkorrekin.

Nola hurreratu zinen poesiara?

Nahikoa modu natural eta inkontzientean, egia esan. Duela urte batzuk bolada nahikoa beltza pasatu nuen, etxeko bat gaixotu egin zelako. Garai hartan, Eibarren ari nintzen lanean, eta aldartea makal antzera nuen egun batez, ordenagailu aurrean jarri eta idazteari ekin nion, automata baten modura, begiak malkotan.

Bat-batean, lankidea etorri zitzaidan atzetik, eta ordenagailuan muturra sartuta, zera bota zidan: “Ederra poema!”. Harrituta begiratu nion, momentuan idazten ari nintzen hura zer zen ere ez nekielako. Hala idatzi nuen aurreneko olerkia, oharkabean, barru-barruko mina ateratzen ari nintzen bitartean.

Lehenago ere ba al zenuen idazteko ohitura?

Bai, ipuin motzak eta halakoak aspalditik idatzi izan ditut, eta literatur lehiaketetan ere parte hartu izan dut. Eleberririk ere badut ezkutuan: *Osaba Joxeren Sotoko Kutxan*. Alabek, oso gazteak zirela, hartu, maketatu, liburu itxura eman eta ale bat oparitu zidaten; beraz, bibliografian nobela bat ere badudala esan dezaket, kar-kar-kar.

Bestalde, poesiari dagokionez, urtero publikatzen den Hatsaren Poesia Bilduman atera izan dira nire olerkiak.

Erraza izan al da liburu argitaratzeko urratsa ematea?

Ez nuen horretarako asmorik, baina nahikoa modu erraz eta naturalean gertatu da dena. Urtero Senperera joateko ohitura dut, han egiten den idazleen bilkura batera. Polita izaten da eguna, idazle handiak eta gu bezalako jendea nahasten direlako.

Bada, handik eta hemendik, harremana egin nuen Maiatz argitaletxeko Luzien Etxezarreta editorearekin. Ainara Maia lagun eta poetak nire olerkiak Etxezarretari bidaltzeko proposamena egin zidan, eta hasieran atzera egin arren, bidaltzea erabaki nuen. Poemak gustatu egin zitzaizkiola esan zidan editoreak, eta hala suertatu zen liburu egiteko aukera.

Liburuan badira tristuratik edo ezinetik idatzitako olerkiak, norberari zein inguruko inguruan. Hala ere, orrietan aurrera egin ahala, bada liburu zeharkatzen duen indar bat, argitara joateko intentzio etengabe bat.

Benetan pozten naiz hori iruditu bazaizu. Beldur nintzen liburu ez ote den oso iluna geratu azkenean. Poesiara barneko korapiloak askatzeko jotzen dut normalean, eta ariketa horretan, zerbait positiboa ateratzen saiatzen naiz, momentu txarretatik argirantz jotzen.

Erreparorik izan al duzu sentimendu edo gai intimoak plazaratzera zindoazela konturatzean?

Poemak idazten ari nintzen bitartean, ez nuen inoiz pentsatu ere egin liburu batean bilduta argitaratuko zirenik. Horregatik, nire sentimenduak, barru-barruko gauzak, hor daude, inongo filtrorik gabe. Onerako eta txarrerako. Gainera, bizialdiaren altura honetan, ez gara lotsa kontuekin hasiko...

Elene Tamayok dotore jantzi du liburu, ilustrazioekin.

Luzien Etxezarretari olerkiak bidali nizkionean, poema batzuk irudiekin lagundu nituen. Argitaletxekoei gustatu egin zitzairen irudiek egiten zuten efektua, eta liburuan ilustrazioak sartzea adostu genuen. Hala, alabek izan zuten Elene Tamayorekin lan egiteko ideia, eta egia esan, plazera izan da.

Udaberriko itxialdiko egunetan bidali zizkidan Tamayok lehen ilustrazioak, eta egia esan, aste zail haietan bizipoz handia eman zidaten. Aita gaixorik izan genuen, eta nahikoa jota nengoela, tantaka joan nintzen marrazkiak jasotzen. Oparia izan dira liburuarentzat, eta niretzat ere bai. ■■■



Ezin jakin

ARGAZKIA ETA TESTUA: IÑIGO GAITON

Epsilon urakanak aspaldiko olaturik handienak ekarri behar zituela-eta, goizean goiz eskoilera muturrerainoko bidea egin nuen, fotoak egiteko asmoarekin. Tamalez, itsasaldiak gauez jo zuen goia, eta eguna argitzerako olatuak ez ziren hain ikusgarriak; itsasoan ez zen ezer ikaragarririk. Hala, argazki bereziren bat egiteko esperantza galduta, aparteko gogorik gabe jardun nuen kamerarekin. Nire harridurarako, irudi hau goiz hartan hartu nuen, objektiboa harrobi aldera begira jarri nuen batean. Etxean jabetu nintzen olatuaren ederraz, gogo nahikoa itzaliarekin fotoak berrikusten ari nintzen bitartean. Ezin jakin inoiz itsasoak zer ekarriko duen; ez bizitza errealean, ez argazkietan ere. ■■■





Olentzerori eta Mari Domingiri agur birtuala

LERA TALDEA

Olentzero eta Mari Domingiri Orioko etorrerako harrera prestatzen diegun Sorginok, hilabeteak daramatzagu geure buruari galdezka: aurten nola egin dezakegu gure festa ereduari eutsi eta egoera berriari aurre egiteko?

Euskal Herriko txoko askotan egiten zai harrera Gabonetako gure pertsonaiei. Urte hauetan, ordea, guk geure modua topatu dugu. Mimos, ertz bakoitza zaintzen saiatu gara, zailtasunak zailtasun.

Gogoratuko zarete iaz ere plaza ezin erabiliagatik, egoerari aurpegirik onena ateratzen saiatu ginela.

Zergatik bildu ginen Orioko sorginok duela hamar bat urte? Hasiera hartan zein motatako harrera ikusten genuen?

Herritik eta herriarentzat egina zen ospakizuna nahi genuen. Printzipio ezinbestekoa genuen baita ere, herriko pertsona guztientzako izango zen ospakizuna izatea. Leku askotan duen kutsu komertzialetik haratago, errespetuz, euskal kultura transmitituko zuen ospakizun bat nahi genuen. Gure umeez beraien haurtzaroko harrera maitasunez gogora zezatela nahi genuen.

Horretaz gain, euskal mitologia herritarrei gerturatzea ere bagenuen jomuga.



Mari Domingi eta Olentzero. J. ZABALETA

Urte hauetan egin den txingurri lana, ikaragarria izan da. Herriko hainbat eta hainbat ate jo ditugu laguntza eske. Eta, beti, salbuespenik gabe, konplize fidelak topatu ditugu bidean. Horrela, poliki-poliki, Lera Taldea osatzen dugun kuadrilla anitza osatu arte (beti ateak alderik alde zabalduak dituen).

Orduan, aurten zer? Mila aukera pentsatu ditugu. Baina batek berak ere ez ditu baldintza hauek betetzen:

OLENTZEROK ETA MARI DOMINGIK MEZUA BIDALIKO DUTE GUTUNAK NON JASOKO DIREN AZALDUZ

- Haur guztien eskutitzak Olentzero eta Mari Domingirengana iristea
- Pertsona oroentzat izatea (aforo mugarik gabe).
- Mimos lortutako magiari eustea.

Beraz, gauzak horrela, aurten Olentzero eta Mari Domingiren agurra birtuala izatea erabaki dugu.

Gabonak baino egun batzuk lehenago, Mari Domingik eta Olentzerok mezua bidaliko digute aurten eskutitzak nola jaso nahi dituzten azalduz.

Herriko txoko desberdinetan eskutitzak non jasoko diren ere esango digute.

Nahi duenak edo behar duenak emailez ere bidali ahal izango diete eskutitza leragabonak@gmail.com helbidera. Gaitzaren eboluzioak markatuko ditu Gabon festak. Baina, gauzak ondo bidean, herriko bi ikastetxeetara gerturatzeke asmoa badute Gabon bezperetan. Urtero egin duten modu berean.

Sorginok aurtengoa ere mimos zainduko dugu. Seguru izan hori!

Zuek zaintzen jarraituko dugu urrutixegotik bada ere.

Klik bat herriko merkataritzaren alde

KARMELE BLANCO ETXEBERRIA

ORIOKO HERRI IKASTOLAKO

LEHENDAKARIA

Amazon multinazionalak Hego Euskal Herrian bultzatutako *Un click para el cole* kanpaina

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alaiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

zeresan handia ematen ari da. Kanpainak bezeroei aukera ematen die Amazonen egindako erosketen balioaren %2,5 nahi duten ikastetxera bideratzeko, beti ere ikastetxea kanpainara atxiki bada.

Amazonen zerrendan Hego Euskal Herriko ikastetxe guztiak zeuden, baita, gure harridurarako, Ikastola denak ere, Orioko Herri Ikastola tartean. Hasteko, zehaztu nahi dugu zerrenda Amazonek berak osatu zuela denon eskura dauden datuak erabiliz, alde aurretik inolako konklusarik egin gabe, baimenik eskatu gabe.

Baten batek pentsatuko du ondo dagoela pandemia garaian gehien aberasten ari den enpresak etekinen zati bat hezkuntzara bideratzea, baina zer dago marketin joko horren atzean?

Ikastolek ez dugu bat egiten Amazonen kanpainarekin

Kaleak hustu dituen pandemiak hil ala biziko egoeran jarri du herriko merkataritza eta ostalaritza. Udaberrian, etxean sartuta egon behar izan genuen garaian, inolako eragozpenik gabe negozioa egiteko aukera izan zuten on-line bidezko denda eta plataformek, Amazonek kasu. Eta bitartean, gure dendak itxita.

Ikastolak ez dugu ahazten herri ikimenetik eta ekarpenetatik jaio garena eta, gaur egun ere, nekez egingo genukeela aurrera erakundeen

eta, batez ere, herritarren babesik gabe. Jarriz gero, zerrenda polita osatuko genuke herriko pertsona eskuzabalen ekarpenekin. Ez daukagu ahazteko kilometroak antolatzea egokitu zaigunean herritarrengandik edo merkatarieingandik jasotako babesa. Edo DBH4ko ikasleek Gabonetan urtero antolatu ohi duten tonbolarako ere oparitarako jasotzen ditugun sari guztiak.

Hortaz, argi eta garbi esan nahi dugu, Ikastolak ez duela inolaz ere Amazonek abiatutako

ZORION AGURRA



2020ko AZAROAREN 30a
SAN ANDRES EGUNA.

Egun horretan hainbat ospakizun bat etorri ziren. Maria Andresaren santua izan zen, eta 81 urte bete zituen egun horretan. Horrez gain, 52. eztei urteurrena ere ospatu zuen senarrarekin; hori gutxi balitz, 17 urte bete ziren lehen aldiz aiton-amonak bihurtu zirenetik, Aratzek 17 urte bete baitzuten egun horretan. Zorionak familia!

kanpainan parte hartu nahi, besteak beste, bertako merkataritzarengan ondorio kaltegarriak dituelako. Argi dugu Orioko komunitatea dela euskaraz bizitzeko aukera ematen diguna, balore solidarioak indartzen dituen, gertuko erreferenteak sortzen dizkiguna...

Hortaz, Amazoni eskatu diogu klik batean Orioko Herri Ikastola bere kanpaina komertzialetik kentzeko. Orioko Herri Ikastolako kideok herriko denda edo taberna batean sartzean egin nahi dugu klik, gure artean elkar zainduz. Herritarrek Ikastola. Ikastolek familiak. Guztiak batera, Oriogara. ■■■

JAIOBERRIAK

- **Sofia Zaversky Perez.** Orion, azaroaren 5ean.
- **Laia Martinez de la Hidalga Izeta.** Orion, azaroaren 11n.

HILDAKOAK

- **Pio Arruti Azkue.** Aian, azaroaren 7an. 69 urte.
- **Kepa Loidi Agirresarobe.** Orion, azaroaren 12an. 67 urte.
- **Jose Luis Mendizabal Erkizia.** Orion, azaroaren 13an. 73 urte.
- **Jose Manuel Goikoetxea Ostolaza.** Orion, azaroaren 16an. 84 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alaiok Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

Euskal kantu eta ereserkiak



IÑAKI ITURAIN iturain@gmail.com

ARGAZKIAK: IÑAKI ITURAIN ETA
MARTIN PERONA

Donostian gertatu zen, hango udaletxeko areto nagusian; 1984. urtea zen, eta EAJko Ramon Labaien zen alkate. Erdizka dantza talde donostiarra Poloniara joatekoa zen euskal dantzak erakustera, Varsoviara. Aurretik, hango dantza talde bat etorri zen Donostiara. Alkateak harrera ekitaldia egin zien etorri berriei udaletxean, dantzari donostiarrekin batera. Udaletxeko aretoa jendez gainezka zegoela, Labaienen hitz adeitsuen ondoren, poloniarren zuzendariak hartu zuen hitza eta hauxe esan zien bertan ziren donostiarrei: “Estamos muy felices de estar en su país, y les cantaremos una canción de aquí”. Ondoren, kantari hasi ziren: “Que viva España...”. Manolo Escobarren kantua aukeratu zuten borondate oneko poloniarrek Donostiako udaletxean kantatzeko. Han zirenek ez dute oraindik ahaztu egun hartakoa, eta ez dute berehalakoan ahaztuko.

Donostiakoaren antzekoa gertatu zitzaion 2003an Australian Espainiako tenis selekzioari Copa Daviseko finalaren atarian, tenislari guztiak tente-serio zeudela,

begira Espainiako oraingo errege eta orduko printze Felipe zutela, James Morrison tronpetarekin Espainiako Bigarren Errepublikako ereserkia jotzen hasi zenean. Badirudi kantuaren partitura Interneten aurkitu zutela, bilaketan Espainiako ereserkia jarrita.

Kantuak ondare inportantea dira munduko edozein kulturatan. Haietako batzuk ereserki bihurtzen dira, eta nazioa munduari aurkezteko ikur bihurtuta, herria ordezkatzeko dute. Bada jendea ereserkiak batera maite ez dituenak, baina nazio guztietan askorentzat garrantzizko gaia da hau. Aurten zazpi euskal lurraldeetako ehunka kantarik aldarrikapen bat zabaldu zuten euskaldun guztiontzat: *Gernikako Arbola* kantuaren lehen ahapaldia izan dadin euskaldun guztion ereserkia, Euskal Herri osoaren ikur musikala: *Gernikako Arbola da bedeinkatua, euskaldunen artean guztiz maitatua. Eman ta zabal zazu munduan frutua,*

KANTUAK ONDARE INPORTANTEA DIRA MUNDUKO EDOZEIN KULTURATAN

adoratzen zaitugu Arbola Santua. Azaroaren 8an Berrian plazaratutako iritzi artikulua batean ezker abertzaleko 50 militante ezagunek bat egin zuten proposamenarekin.

Aurten bete dira 200 urte abesti hori sortu zuen Jose Maria Iparragirre Urretxun jaio zenetik, eta 170 inguru hark kantua sortu zuenetik. Seguru asko, geroztik kantu horixe izan da euskal kanturik ezagunena eta kantatuena euskal herrialde guztietan.

Euskal ereserkiak

EAEko edo Euskadiko ereserki ofiziala Euskal abendaren ereserkia da 1983tik, *Gora ta gora Euskadi, aintza ta aintza, bere goiko Jaun onari* hasten dena. Sabino Aranarenak dira hitzak, 1902koak. Euskaldun batzuentzat ez da egokia, hitzetan partidista eta konfesionala omen delako.

Euskaldun batzuek, izaera eta ideologiaren arabera, beste kantu batzuk jotzen dituzte gure ereserki. Xabier Leteren *Xalbadorren heriotzean* da kantatuenetako bat: *Adiskide bat bazen...* Euskal kantu ezagunenetakoak dira, baita ere, Txoriak txori eta Eusko gudariak. Azken honen doinua oriotar batek egokitu zuen, Alejandro Lizasok, 1936an gerrako frontean tiro batek hil baino lehen. Txoriaren hitzak



Orioko luistarrak Gernikako Arbolaren aurrean, Juan Loidi apaizarekin egun-pasa joanda, 1930ean.

Joxe Antton Artze usurbildarrarenak dira, Mikel Laboaren doinuarekin denontzat ezagunak direnak.

Eusko gudariak gera, Euskadi askatzeko, gerturik daukagu odola bere alde emateko dio batek; Hegoak ebaki banizkio, neria izango zen, ez zuen alde egingo, baina horrela ez zen gehiago txoria izango bestea. Askatasunaren aldeko kantuak dira biak, herriaren askatasuna, txoriarena, norberarena... Batek kutsu epikoa du, bestea lirikoa.

1985ean *Euskal kantagintza berria liburua* idatzi zuen Pako Aristik; 2020an liburua berrargitaratzean euskaldunon herri ereserkitzat jo zituen, besteak beste, Benito Lertxundiren *Zenbat gera? lau, bat, hiru, bost, zazpi eta Mendian lar artean, aurkitzen da loretxo bat...*

Hitzak aldatutako kantuak

Ereserki gehienek, ez denek, hitzak dituzte, eta hitzek esanahi handia. Horregatik,

historian zehar aldatu ere egin izan dira abesti eta ereserkien hitzak, momentuko ideologia edo interesen arabera.

Bada Iparragirreraren beste kantu ezagun bat *Hara non diran: Hendaian nago zoraturikan, zabal-zabalik begiak, hara*

Euskal Herri, lur hoberikan ez da Europa guzian. Urretxuko bardoaren kantu honek badu, baina, berezitasun bitxi bat: Jose Marik sortu zuenean, ez zuen esaten *Euskal Herri*, baizik eta *Espainia*. Iparragirreraren garaian, Sabino Aranaren nazionalismoa artean sortu gabe, euskaltzale hark



Jose Mari Iparragirre, *Gernikako Arbola* kantuaren sortzailea.

Hendaiatik Urretxu aldera begiratuta ikusten zuena izendatzeko España zerabilen. Euskaldun batzuek geroztik egina da aldaketa; ereserkien hitzen garrantziaren seinale.

Erlijoak eta elizak ere baditu bere kantu eta ereserkiak. Euskal elizan San Ignaziorena da ezagunenetakoa. Kantak



Herria plazan bilduta, festa giroan, txistulariekin; gerra aurretik. Gizon izugarri altu bat ageri da. Nor ote zen?

baditu gutxienez hiru bertasio: jatorrizkoa, sabinianoa eta Unai Manterola Orioko apaizak sortutakoa. Duela hilabete batzuk, elizako katurik ezagunenetako bati ere, Aita Gureari, hitz batzuk aldatu dizkio Euskal Herriko Elizak; orain arte esaten zena: *eta ez gu tentaldira eraman orain ez utzi tentaldian erortzen da*. Honela arrazoitu zuen Unai aldaketa: “Baina nola eramango

gaitu, ba, Jaungoikoak gu tentaldira?”.

Beste kanta baten hitzak ere aldatu nahi izan dira, euskal katurik ezagunenetako batenak: *Agur, jaunak, jaunak agur, agur t´erdi*. Abestiaren hitzetan jaunak bakarrik agertzen dira, emakumerik ez, eta batzuek aldatu egin dute; *Agur jaunak ta andreak, denak agur*. Baina denak ez daude ados, aldaketarekin kantuak

simetriaren edertasuna galtzen omen du. Izan ere himnoek sentimenduak eragiten dituzte askorengan: zirrara, hunkidura, oilo-ipurdia, begiak bustitzea...

Herri eta hiri batzuek ere badute beren nolabaiteko himnoa. Donostiakoa

denok danborradako Sebastian bat bada zeruan... dela esango genuke. Iruñekoa, sanferminetako *Uno de enero, dos de febrero*. Festari lotuak biak. Baionan, hango arraun klubetik sortutako errugbi taldearen ereserkia da hiriarena ere, Aviron Bayonnais-ena: *Agur, agur, gure herriko xuri-urdineri, gure hamabost jokalarieri; txalo, txalo, gogotik ari diren mutileri, Baiona ohoratzen duteneri*. Bilboren kasuan badira batzuk: *Un inglés vino a Bilbao, a ver la ría y el mar...*, *Desde Santurce a Bilbao* eta haien alirona *Athletic zuri ta gorria...*

Eta Orion, zer? Ba al dugu ereserkirik? Nik dakidala, ofizialik ez, baina Patxi Danbolinek asmatutako Orioko martxa badugu, herriaren

**ORION ERESERKIAK
IZAN LITEZKEEN BI
KANTUETAN
ANIMALIAK DIRA
PROTAGONISTA**



Mariano G. Txabarri eta Inazio Leunda txistulariak.

zaindari San Nikolas dugula-eta, sanikolas festen hasieran txarangak jotzen duena. Alirona ere hor dago, herriko arraunlarien garaipenak ospatzeko kantua: *Ez dago oriotarrik kantu hau ez dakinik, ez dago mundun herririk bandera gehio dunik*. Alironarekin batera, Orion ezagunenak eta herritarrek kantatuenak *Baleraren bertsoak* dira: *Mila bederatzireun ta lenengo urtian*, Orbegozo apaizarenak omen direnak. Benitok ere egin nahi izan zuen bere ekarpena

eta *Mirotzak* abestia sortu zuen, jaioterriari eta arraunlariei kantatzeko, *Nere herria, mirotz leinua, arraun orru, bihozkadaren oihua; ez zara inoiz bakarrik joango, mirotz gogoa da zure arnasa izango*. Bitxia da Oriokoa, munduan zehar ereserkietan nazioa izan ohi da protagonista, gudariak, festa... Gure herrian, berriz, animalia bana dira protagonista nagusiak ereserki rola jokatzan duten bi kantuetan: balea eta mirotza, itsasokoa bata, hegalaria bestea. ■



Benito Lertxundi 'Uxkun'.



Garaipena Kontxako estropadan, 1955ean: agintariak, arraunlariak, amandreak, banderak, loreak eta kantua *Aliron, aliron*.



Katu Horia
albaitaritza klínika

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

LARRIGIARIK
668891129



kutixi
kafetegia

Aritzaga 9 • ORIO • 943-13 15 17



KORTABERRI
arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47



Lizaso
Dekorazioa

Eusko Gudari, 48 • ORIO • 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com



MARIJO
LEAPAINDEGIA

Eusko Gudari, 8 behea • ORIO
943-13 47 29

MENDIZABAL
AROTZEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Beti-Alai etxea • AIA-ORIO
943-83 11 75 • 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net



narau
school & translations

www.narau-school.com


Eusko Gudari 29 - ORIO
943-83 11 16
648 97 64 70
info@narau-school.com

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

Eusko gudariak, 35 • ORIO
(sarrerara Arrantzale kaleetik)


943-53 64 94
697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com

Ordo elikatuz Bizi



niko
taberna

Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia



Palota Kalea, 5 • 20810 Orio • Egin erreserba 943-53 61 27

Oreka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 • 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia • Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa • Osteopatia




Zarautz

Hileta Zerbitzuak
1962. urtetik zure zerbitzura

24 ordu zure zerbitzura
Beilatokia • Lekualdatzeak •
Eginbide guztien tramitazioa

Araba kalea 35 • ZARAUTZ
943-89 49 37
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus



Zer iritzi duzu COVID-19aren aurkako txertoaren gainean? Urte hasieran hartzeko prest egongo al zinateke?



SUSANA MARTIN

Hilabete hauetan guztietan, txertoa salbazio modura-edo saldu digutela iruditzen zait, edo egoeraren latzogatik, guk hala hartu dugula iritzi diot. Normalean, ez naiz txertoen oso aldekoa, baina erabat aurkakoa ere ez; nik hartu izan ditut, eta nire semeari denak jarri dizkiot. Errezeloa sortu izan dit beti gorputzean sartzen dizutena zer den oso ondo ez jakiteak. Izurritearen kasuan, aterako duten txertoa berria da, eta berritasun horrek are zalantzak eragiten dizkit. Gainera, osasun krisian izan den informazio nahasi eta kontraesan piloa kontuan hartuta, zaila egiten da ezer sinestea ere. Dagoeneko zehaztu dute nork izango duen lehentasuna txertoa hartzerakoan. Nik, urte hasieran ez nuke hartuko; aurrerago bai.



UXUE ROJO

Egia esan, nahikoa azaletik jarraitu ditut txertoaren gaineko albisteak. Logikoa den moduan, jendartearen gogo handia dago txerto eraginkor eta seguru bat izateko, eta enpresak lehia bizian dabilta, interes ekonomikoa ikaragarriarekin; azkarregi ari dira txertoa garatzen behar bada, baina egoeraren larritasuna ere halakoa denez... Horrek, errezelo pixka bat eragiten dit, egia esan. Bestela, txertoen aldekoa naiz orokorrean; nik hartu izan ditut, eta seme txikiari ere jartzen dizkiogu. Urte berriari begira, txertaketa prozesua era ordenatuan egitea oso garrantzitsua dela iruditzen zait, adituek ezarritako irizpideen arabera. Nik, zalantzekin bada ere, hartuko nuke txertoa urte hasiera aldera, aukera izanez gero.



GOTZON IGOA

Azken albisteak poz handiarekin hartu ditut. Txertoaren gaineko albiste onak jaso zain antzeman dut jendea inguruan, esperantza handia eragiten duen zerbait da. Hala ere, orokorrean, txertoek ez didate grazia handiegirik eragiten. Medikura joatea kostatzen zaien horietakoa naiz, eta saiatzen naiz ahalik eta botika gutxien hartzen. Txertoekin ere berdin gertatzen zait. Dena den, adituek koronabirusaren kontrakoa eraginkorra eta segurua dela badiote, hartu egin beharko da, beldur pixka batekin bada ere. Izurritearen kontrako erremedio nagusia izan daiteke, baina nire ustez, txertoa ematen hasita ere, bestelako segurtasun neurriak gordetzen jarraitu beharko dugu, beste tarte luze batean. ■

"Beharrezkoa da erabakiak hartzen diren foro guztietan egotea, herritarrentzat erabilgarriak izan nahi badugu"

ELI HUEGUN AHOALKULARI POLITIKOA

Eli Huegunek (Aia, 1991) lau urte daramatza lanean Espainiako Senatuan EAJren aholkularitza gabinetean. Giro politikoa nahasi dagoela uste du aholkulari gazteak, eta denbora tarte horretan Madrilen bizi dituen gertaerak horren adibide argia direla uste du: Espainiako Gorteetako hiru hauteskunde; 155. artikulua aplikazioa Katalunian; zentsura mozioak; eta COVID-19ak sortutako alarma egoera, besteak beste.

Testua: **Aiora Larrañaga Solaberrieta**. Argazkiak: **Gloria Marin**.

Zer lan egiten duzu Espainiako Senatuan? Aholkularitza parlamentarioa eskaintzen dut nire lankideekin batera. Senatua hainbat batzordetan antolatuta dago, gaiaren arabera, eta ni alderdi juridikoaz arduratzen naiz, nagusiki: konstituzionala, justizia, berdintasuna eta barne mailako nahiz atzerriko gaiak jorratzen ditut, baita hezkuntza eta kirola ere. Dena dela, beste hainbat arlotan ere laguntzen diet kideei, beti baitago zeregina. Izan ere, Espainiako Senatuan inizatiba desberdinak aurkezten dira astero, eta horiei erantzuna eman behar zaie. Horretarako, aholkulariok ekimenak aztertzen ditugu; ondoren, senatariekin informazioa partekatzen dugu, eta gure iritzia ematen diegu.

Espainiako Senatua nahiko ezezaguna da. Zer gai jorratzen dira bertan? Badu erabakitze eskumenik?

Espainiako Kongresuan hartutako erabakien berri ematen dute komunikabideek, eta han biltzen dira lehen lerroko politikari nagusiak. Dena dela, Kongresua eta Senatua bateragarriak dira, Espainian Gorteek ganbera biko sistema dutelako. Kongresuak baditu eskumenak Senatuak ez dituenak, eta baita alderantziz ere. Adibidez, 155. artikulua debata eta hori onartu edo ez erabakitze bozketa Senatuan egiten da. Artikulu hori unibertsitatean ikasi nuenean, ez nuen sekula pentsatu lehen pertsona biziko nuenik, baina tokatu zitzaidan, 2017an Kataluniari autonomia suspenditu ziotenean. Senatua bigarren irakurketako ganbera dela esan dezakegu.

Azaltzerik bai hori?

Kongresuan onartzen diren legeek gero Senatutik pasa behar dute. Normalean, lehenengoan aurrera ateratzen diren ekimenak Senatuan ere





Huegun Senatuko liburutegian.

onartzen dira, ez delako alde nabarmenik egoten bi ganberen arteko konposizioan, baina aldaketak egin egiten dira. Legez besteko proposamenak ere aurkezten dira Senatuan, ekimen jakinei bultzada emate aldera. Horrez gain, Senatuaren funtzio garrantzitsuenetakoa gobernuaren kontrola egitea da, ezinbestekoa baita gobernu bat ez dadin sentitu nahi duena egiteko legitimatua. Alderdiok galderak egiten dizkiegu gobernuko kideei, eta interpelazioak ere egiten dira.

Askotan herritarrek urruti ikusten dituzte Espainiako Gorteak. Madrilen ordezkari izatea garrantzitsua al da euskal alderdientzat?

Espainiako Gorteetan gure egunerokoa eragin zuzena duten erabakiak hartzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroak hainbat kompetentzia transferituak dituzte, baina eskumen horiek ez dira beti erabatekoak izaten. Adibidez, Espainiako Estatuak oinarri batzuk zehazten ditu, eta autonomia erkidegoek horietan oinarritutako politikak garatzen dituzte; beste batzuetan, berriz, Estatuak erabakitzen duena exekutatu behar dute lurraldeetako gobernuak. Oriorentzat, esaterako, itsasoari lotuta hartzen diren erabakiak garrantzitsuak dira, bertako ekonomian eragina dutelako. Arrantzari eta portuei dagozkien hainbat arlo Espainiako Estatuak erregulatzen ditu gaur-gaurkoz.

Horregatik, guretzat behar-beharrezkoa da erabakiak hartzen diren guneetan ordezkari izatea eduki eta negoziatzen jakitea.

Negoiazioa aipatu duzu. Zaila al da alderdi txikiarentzat Espainiako Gorteetan ahotsa edo eragiteko ahalmena edukitzea?

Nik uste dut beharrezkoa dela erabakiak hartzen diren foro guztietan egotea, alderdiek herritarrentzat erabilgarriak izan nahi badute, diskurtso hutsean geratu ez daitezen. Espainiako Gorteetan alderdi bakoitzak bere kartak jokatzeko jakin behar du. 2013an, esaterako, LARSAL izenez ezagutzen den legea onartu zen Gorteetan, toki-administrazioaren arrazionalizazioa eta jasangarritasuna arautzen zuena. Lege horrek zuzenean eragiten die herritarrei, udalek zenbat eta nola gastatu dezaketeen arautzen duelako. Nire lankidea izan zen senatari bat buru-belarri aritu zen lege horren gainean negoziatzen, eta lortu zuen ez aplikatzea Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan. Horri esker, 2017an onartu zen Toki Erakundearen Legea, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, hamarkada luzez ados jarri ezinik ibili ondoren. Gaur egungo testuingurua ere oso egokia da horretarako, derrigorrean negoziatu beharra daukalako Pedro Sanchezek. Alderdi txikiak jakin behar dugu non gauden eta zer exijitu behar diogun babes emate horretan.

Zeure burua inoiz imajinatu al zenuen Espainia mailako politikan?

Euzko Gaztedi-EGIn militatzen hasi nintzenean ez nuen politikan gora egiteko inolako helbururik, ezta horri lan arloan etekinik ateratzeko asmorik ere. Inoiz ez zitzaidan burutik pasa Madrilen politikagintzan aritzerik, are gutxiago Senatuan, guztiz ezezaguna baita.

Zein izan da zure ibilbidea, Espainiako Senatuan aholkulari izatera iristeko?

Zuzenbidea ikasi nuen Bilbon, eta abokatu izateko masterra ere egin nuen. Urtebete inguru egin nuen abokatu bufete batean lanean. Gai batean espezializatu nahi nuen, eta gehien gustatzen zitzaizkidanak ziren lan arloko zuzenbidea eta nazioarteko eskubide publikoa. Giza Eskubideen Nazioarteko babeserako master juridikoa egitera joan nintzen Madrilerara, eta ikasketen atal presentziala bukatu bezain pronto lan eskaintza egin zidaten.

Eta ondoren Senatura?

Lau hilabeteko praktika egonaldia egin behar nuen Fundacion Mujeres erakundearen, genero



Eli Huegoñ Senatuan, emakumeen boto eskubidea aldarrikatzen duen muralaren aurrean eserita.

"INOIZ EZ ZITZ AidAN BURUTIK PASA MADRILEN POLITIKAGINTZAN ARITZERIK"

"ALDERDI TXIKIEK JAKIN BEHAR DUGU NON GAUDEN ETA ZER EXIJITU BEHAR DUGUN BABESA EMATEAN"

"BETAURREKO MOREAK ASPALDI JANTZI NITUEN, ETA BIDE LUZEA DUGU EGITEKO PAREKIDETASUNA LORTZEKO"

indarkeria jasan duten emakumeekin lan egiteko. Bien bitartean Aiarra etorri nintzen eta gau batean, Maria Eugenia Iparragirrek deitu zidan, Senatuan lanerako aukera sortu zela esanez. Hasieran ezustekoa hartu nuen, baina hurrengo egunean baietz erantzun nion eta prozesuan sartu nintzen. Garai horretan nire aukeren artean ez bazegoen ere, aukera bikaina iruditu zitzaidan. Politika beti gustatu izan zait, asko gainera. Iparragirrekin eta Jokin Bildarratzekin hiruzpalau elkarrizketa egin ondoren, Senatuan hasi nintzen lanean, 2016ko otsailean. Gaur arte.

Nola gogoratzen dituzu aurreneko egunak?

Hasiera nahiko gogorra izan zen, lehen lau hilabeteetan lana eta praktikaldia uztartu behar izan nituelako; egunero hamabi ordu baino gehiago sartzen nituen, argi bainuen masterra bukatu behar nuela. Zorionez, nahiko garai lasaia tokatu zitzaidan Senatuan. Izan ere, 2016an hauteskundeak errepikatu ziren, Mariano Rajoyk ez zuelako gobernua osatzea lortu. Horrek lagundu zidan bi lanak bateratzen.

Zuzenbidea ikasteaz gain, politikan aritu zara gaztea zinenetik. Nondik datorkizu politikarako grina?



Eli Huegun Agenda 2030ari buruz UNICEFekin egindako bilera batean, Maria Eugenia Iparragirrekin batera.

Gazte batzuei gauza batzuk interesatzen zaizkie, eta niri beti gustatu izan zait politika. Oso gazte nintzela hasi nintzen militatzen. Hasieratik, nire helburua izan zen herriaren alde lan egitea eta gauzak hobetzea; uste nuen garrantzitsua zela ekarpena egitea eta iritzia ematea, eta horrek asko ikasteko balio izan dit, gainera. Militantzia ahalegina da; bilera pila bat, jardunaldiak... Oraindik ere jarraitzen dut aktiboki parte hartzen; astean zehar antolatzen diren ekintzetan ezin dut parte hartu, baina asteburuetan ekitaldiaren bat badago saiatzeko naiz joaten. **Askotan politika gizonezkoen arloa dela esan izan da, azken hamarkadan aldatzen ari bada ere. Zu emakumea eta gaztea izanda, oztoporik antzeman al dituzu Espainiako Senatuan?**

EAJren taldea hamar senatarik osatzen dute, eta horietatik zazpi emakumezkoak dira; bozeramailea ere, emakumea. Horrez gain, langileen artean lautik hiru emakumeak gara. Nire lanean ez dut antzematen emakume izateagatik oztoporik edo bazterketarik, baina jakin badakit erabakigune nagusietan gizonak daudela, eta kosta egiten dela aginte-makila emakumeen esku uztea. Betaurreko moreak aspaldi jantzi nituen, eta parekidetasuna lortzeko bide luzea dugu oraindik egiteke.

Dena dela, kuriositate bezala, Senatuan gertatzen zaidan zerbait kontatu nahi nuke.

Senatuko eraikin administratiboa bulegoz josia dago; alderdi politiko guztietakoak batera gaude, eta harremana dugu gainontzeko alderdietakoekin ere. Nire bulego-kideak eta nik 27 eta 29 urte ditugu, eta gure solairuko gazteenak gara nabarmen. Hala, beste alderdietakoek *Las niñas* deitzen digute pasilloan ikusten gaituztenean, eta oso argi dut gizonak izango bagina ez liguketeela *Los niños* hots egingo. Gauza horiek amorrua eta nazka ematen didate, eta antzemanarazi egiten dut, gainera.

Pentsatzen dut alderdi batetik bestera oso bestelakoa izango dela talde parlamentarioen konposizioa.

Bai, errealitate desberdina du bakoitzak.

Ganberako laugarren taldea izan arren, gu oso talde txikia gara, eta hamar senatarirekin Alderdi Sozialistak (113) edo Popularrak (97) adina batzordetara iritsi behar dugu. Iniziatiba kopuru berdinari eman behar diogu erantzuna eta lan egiteko modua oso bestelakoa da. Nik, esaterako, ezin dut gai konkretu bakar batean espezializatu, adar ezberdin asko ukitu behar ditudalako. Agian hori da lan honen zailtasunik handiena, bat-batean txipa guztiz aldatu behar izatea.

Zerk harritu zintuen gehien Espainiako Senatuan lanean hasi zinenen?

Bi eraikin handik osatzen dute Senatua, eta bulego txiki pila bat dituzte. Harrigarria da politikariek eta aholkulariek gain zenbat langile

biltzen diren bertan egunero: informatikari piloa daude, baita ere programatzaileak, eszenotipistak, takigrafoak, ujierrak –ganbera barruko etxezain edo maiordomoak–, garbitzaileak, idazkariak eta funtzionarioak. Ez nuen pentsatzen hainbeste jendek lan egingo zuenik Senatuan.

Horrez gain, eraikinetako bat XVI. mendekoa da; komentua zen garai batean. Oso eraikin dotorea da, eta museo bezala ere funtzionatzen du. Espainiako Estatuaren arte ondarearen zati bat du ikusgai, tartean Txillidaren eskultura bat; historialariek eta gidek ere lan egiten dute bertan. Ez nuen sekula pentsatuko Senatuak arte ondare garrantzitsua jasoko zuenik, eta ezusteko atsegina izan zen. Bisitan etorri zaidan jendea ere horrek harritu du gehien.

Kanpotik begiratuta, badirudi beti liskarrean aritzen direla alderdi desberdinetako politikariak.

Komunikabideen atzean, nolakoa da zuen arteko harremana?

Astean zehar Senatuan lan egiten dugunon arteko harremana ona da; batzuekin kafe bat hartzera joaten naiz, eta beste batzuekin ez naiz erlazionatzen, baina pentsatzen dut gauza bera gertatuko dela langile asko biltzen diren erakunde edo enpresa handietan ere. Pertsonen arteko harremanetan gertatzen den bezala, denetik dago. Nik, esaterako, harreman ona izan dut Podemoseko jendearekin eta baita PPko batzuekin ere.

Alderdikeriak harreman pertsonaletatik kanpo geratzen dira, beraz?

Badira salbuespenak, onartzen ez nauen batekin ez naizelako inora joango.

Lehen erre egiten nuen, eta patioan jende asko elkartzten ginen, alderdietako kideak eta baita Senatuko langileak ere: informatikariak, garbitzaileak... Podemoseko jendearekin, esaterako, asko egoten nintzen. Harreman normalak ditugu geure artean, baina saiatzen gara politikaz gehiegi ez hitz egiten. Buruarentzat kaltegarria eta nekagarria da etengabe gai berari bueltak ematen jardutea, eta guri ere ondo etortzen zaigu gai arruntez hitz egitea deskonektatzeko.

Martxotik COVID-19aren izurritea bihurtu da lagun arteko gai

nagusia. Zer giro politiko antzeman duzu Espainiako Gorteetan?

Giroa oso nahasia dago, eta uste dut politika partidistak egin dituela oposizioak zein gobernuak. Maila politiko gabezia handia egon da, eta argi ikusi zen urriaren 22an, pandemian bete-betean murgilduta, Vox alderdiak zentsura mozioa aurkeztu zuenean. Ez zen izan ekarpenak egiteko aurkeztutako mozioa, eta bertan eman zen eztabaidak argi erakutsi zuen giro politikoa. Gu azken hilabete hauetan saiatu gara alderdien arteko liskarretan ez sartzen, ez delako gure jokoa.

Urriaren amaiera politikoki oso konplexua izan zen: alarma egoeraren luzapena onartu zen; aurrekontu proposamena azaldu zuen Espainiako Gobernuak –gobernu batek duen oinarri garrantzitsuena, bere jarduna horretan oinarritzen delako–, eta garai berean zentsura mozioa aurkeztu zuen Voxek. Horiek guztiak egun gutxiren bueltan gertatu ziren, eta giro nahasi horren adibide argia dira.

Dena dela, aitortu behar dut pandemia hasi zenetik, debate politiko nagusia Kongresuan eman dela, eta Senatuan lasaiago egon gara. Martxotik uztailela dena bertan behera gelditu zen, eta telelanean aritu ginen; presentzialki egin zen gauza nabarmenena gobernuaren kontrola izan zen.

Arlo pertsonalean, nola pasa dituzu izurriteak kolpatutako hilabeteak Madrilen?

Nik uste nuena baino hobeto moldatu nintzen. Ni Aian baserrian bizi naiz, eta etxe bueltan paseatzeko eta aire librean egoteko toki ederrak

**MUXUTRUK
LOREDENDA**

*Hemen gaude zure etxea alaitasunez betetzeko.
Etxerako zerbitzua dugu*

Eusko Gudari 11, Orío · 627 63 00 22
muxutrukloredenda@gmail.com · Muxutruk loredenda



EGIk 110 urte bete zituenean, ospakizuna izan zen Tolosan, eta emanaldia eskaini zuten Huegunek eta EGiko kide batzuk. UTZITAKOIA

ditut. Horregatik, hasieran uste nuen gogorra egingo zitzaidala pisu batean itxita egotea, baina ez dut antsietaterik sentitu. Telegen aritu naiz, eta nire lankideekin etengabeko kontakua izan dut, bideo dei bidez nahiz telefonoz. Izan ere, guk taldean lan egiten dugu, eta horretan saiatu ginen alarma egoeran ere.

Dena dela, garai zaila izan da askorentzat, batzuek familiako kideren bat galdu dutelako eta beste askok lanarekin arazoak izan dituztelako. Martxotik lantokian lan erregulazio txostena ezarri dioten jendea ere badut familian – gehiengo ostalaritzatik bizi da –, eta jakin badakit horrek zer nolako ezinegona eragiten duen. Madrilen konfinatuta nengoen bitartean kezkatuta egon naiz etxekoengatik; telefonoz hitz egiten nuen haiekin, baina askotan norbait urrun dagoenean ez zaio guztia kontatzeko arduratzeagatik. Berez, etxera joateko aukera ere banuen, ofizialki nire etxea Aian dagoelako, baina gure aitona 90 urte ditu, eta ohartu gabe gaitza kutsatzeko beldur nintzen, Madrilen intzidentzia tasa handiak genituen arren, orduan ez zituztelako PCR probak orain bezala egiten.

Gizarteak izurritearen aurrean izan duen jarrera ere ezbaian jarri izan da azken hilabeteetan. Zuk nola baloratzen duzu?

Gure gizarte ereduak sekula bizi izan ez duen egoera batean murgilduta gaude, eta ohitzen ari gara pixkana. Badira, ordea, legeri zirrikitua bilatu nahian dabilzanak, arauak ez betetzeko, eta horrek gizartean frustrazioa sortzen duela iruditzen zait. Horrelako jarrerak ekidin behar direla uste dut, politikan gertatzen den bezala, elkarren aurka baino hobeto funtzionatuko dugulako elkarrekin.

Estatu mailako politikan jarraitu nahi al zenuke?

Hamar urte barru ez naiz Senatuan lanean imajinatzen, lan karga handia eskatzen duelako eta kontziliazioa ere oso zaila delako, ordutegiak errotzeko modukoak baitira. Gainera, gure lana oso ziurgabea da. Nik lau urte daramatzat Senatuan, eta hiru hauteskunde pasa ditut: alderdiek hauteskundeetan lortzen dituzten emaitzek baldintzatzen dute eduki ditzaketen aholkulari kopurua. Gaztea naizen bitartean, ikasteko eta ekarpenak egiteko aukera gisa ulertzen dut nik Senatuko lana, baina etorkizunean beste era bateko lana nahi nuke. Zuzenbidea ikasi nuen, eta abokatu gisa lan egitea gustatuko litzaidake, lan arloko zuzenbidean edo penalean. Amesten jarrita, nazioarteko erakunderen batean jardun nahi nuke. ■■■

INDARKERIA MATXISTAREN

AURREAN

EZ

ZAITEZ

IKUSLE

HUTS

BAT

IZAN

ERASO ASKO GURE BEGIEN AURREAN GERTATZEN DIRA.
ZUK ERE BADUZU HAU ALDATZEKO ARDURA.



NOLA JOKATU JAKITEKO INFORMAZIOA:

berdintasuna.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

Indarkeria matxistaren (h)egiak aztergai

Azaroaren 25a Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen, eta horren bueltan, indarkeria matxistaren hainbat adar ezagutzeko aukera egon zen Orion, gaian adituak diren hizlarien eskutik: Samara Velte, Esti Linares eta Susana Miguel.

Testua: **Aiora Larrañaga Solaberrieta**. Argazkiak: **Dorleta Agiriano Lai eta Aiora Larrañaga Solaberrieta**.

ndarkeria matxistaren (h)egiak jardunaldia izan zen Orioko Arraunetxan, azaroaren 21ean, Orioko Ahalduntze Eskolak antolatuta. Azaroaren 25aren atarian, besteak beste, "komunikabideak eta diskurtso juridikoak", "ziber-indarkeria matxista" nahiz "haurtzaroko sexu-abusuak" izan zituzten hizpide Samara Veltek, Esti Linaresek eta Susana Miguellen, hurrenez hurren.

Samara Velte kazetariak ireki zuen jardunaldia, eta indarkeria matxistari buruzko diskurtsoak eta horiek komunikabideetan duten irudikapena izan zituen hizpide, 2019an argitaratu zuen *Nik sinesten dizut* saiakeran oinarrituta. Zarauztarra kazetari lana ikuspegi feminista batetik egiteko beharraz hausnartzen aritu da aspalditik, eta horretarako tresnak falta direla ohartu zen. "Hasi gara teorizatzen nola egin dezakegun kazetaritza genero ikuspegitik, baina hastapenetan dago ariketa kolektibo hori komunikabideen sektorean. Unibertsitatean komunikabideen diskurtsoak ikertzen aritu nintzen, eta komunikabideetako diskurtsoek gizarteko botere harremanekin duten lotura aztertu nuen. Hala, ohartu nintzen askotan botere harreman horiek berrindartzen direla mekanismo sotil batzuen bidez, eta beste batzuetan oso nabarmenen bidez baita ere. Nik neuk, berriz, uste dut komunikabideek duten boterea erabili behar dela egia eta diskurtso konpartituak ezartzeko eta zabaltzeko", azaldu du Veltek.

2016ko bortxaketa

Analisi praktikoa egiteko 2016an Iruñean jazo zen talde bortxaketa bat hartu du adibidetzat. Sanferminetan emakume bat eraso zuten

bost gizonen, eta erasotzaileen aurkako sententziak jasotako edukiak nahiz hedabideek argitaratutakoak aztertu zituen zarautzarrak. “Nagusiki aztertu nituen Iruñerriko komunikabide nagusiak, eta batez ere prentsa: *Diario de Navarra*, *Diario de Noticias*, *Correo* taldea eta Espainiar Estatuko komunikabide handiak. Azken hauek aztertzea erabaki nuen auzia zabaldu zelako Espainia mailara, eta garrantzitsua iruditu zitzaidan Madrilgo komunikabideen eraginari ere erreparatzea”.

Ikerketa egindakoan, Velte ohartu zen komunikabide guztietan patrioi eta topiko batzuk errepikatu zirela, “inork ez zuelako begirada feministatik landu gaia. Iruditegia oso matxista izan zen, eta emakumea zalantzan jartzen zuten metaforak erreproduzitu ziren”. Dena dela, komunikabide batetik bestera gaia lantzeko orduan desberdintasunak izan zirela uste du kazetariak: “Hasieran, bertakoez kontu handiagoarekin landu zuten gaia, baina Madrilgo komunikabideek morboaren narratiba areagotu zuten. Telebista handiek gaian fokua jarri zutenean, ordea, garrantzi handia hartu zuen agenda mediatikoan, eta komunikabide guztiak sartu ziren morboa pizteko lehia horretan”, adierazi du.

Erantzun kolektiboa

Indarkeria matxistaren (h)egiak jardunaldiak erantzun bikaina izan zuela nabarmendu dute antolatzaileek: “Lehenengo aldia da Orion mota horretako jardunaldia antolatzen duguna, eta saiatu ginen gaian adituak diren hizlariak ekartzen. Bertan azaldukoak eztabaidarako bidea ireki zuten publikoaren artean, eta ekarpen oso interesgarriak egin zituzten herritarrek”. Hiru hitzaldiak elkarren artean oso desberdinak izan baziren ere, muinean mezu bakarra helarazi zutelara uste dute Ahduntze Eskolako arduradunek: “Indarkeria sexista estrukturala da, eta erantzunak ere kolektiboa eta estrukturala izan behar du”.

Azaroaren 21eko jardunaldiez gain, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunean, azaroaren 25ean, manifestazioa egin zuten herritarrek herrian barrena, Xaltxerak talde feministak antolatuta, *Erasotzailea zu zara* lelopean. ■■■



Goian, 'Indarkeria matxistaren (h)egiak' jardunaldia; behean, azaroaren 25ean Orion egindako manifestazioa.

**"INDARKERIA SEXISTA
ESTRUKTURALA DA ETA
ERANTZUNAK ERE
KOLEKTIBOA IZAN
BEHAR DU"**


KARKARA laguntzaile

Egin zaitez bazkide!

Zergatik KARKARA laguntzaile?

- Nire herriaz kalitatezko eta gertuko informazioa jasotzen jarraitu nahi dudalako. Hilero nire etxean eta uneoro **karkara.eus**-en.
- Euskaraz bizi nahi dudalako eta euskararen biziberritzea bultzatu nahi dudalako.
- **KARKARAlaguntzaile**aren abantailez gozatu nahi dudalako.
- **KARKARAlaguntzaile** izateko deitu: **688 85 96 82** · **karkara@karkara.eus**.
- Urteko kuota: 36 euro.

Hil honetako KARKARAlaguntzaile zozketak:



Aldibereko

Liburua

Idoia Santamaria Urkaregiren liburua



PARTE HARTZEKO:

Deitu 688 85 96 82 zenbakira edo idatzi **karkara@karkara.eus** helbidera. Parte hartzeko epea gaurtik urtarrilaren 3ko eguerdiko 12:00ak arte. Irabazlearen izena KARKARAKo hurrengo zenbakian argitaratuko da. KARKARAlaguntzaile eta KARKARAlaguntzaile berrientzat bakarrik.

Haize berria herri kiroleetan

Gipuzkoako Herri Kirolen Federazioak, aurrenekoz, emakumezkoa du presidente karguan: Ainhoa Etxabe. Herri kirolak suspertu nahi dituen zuzendaritza berriko kidea da Iñaki Oliden ere, eta, biek hala biek, gogoarekin heldu diote aurrean duten erronkari.

Txikitatik ibili dira herri kirolen munduan sartuta Iñaki Oliden eta Ainhoa Etxabe; bata plazan eta bestea inguruan, baina giroan beti. Gaur egun, modu batera edo bestera, orduak egiten dituzte idien zein harrien bueltan biek.

“Iñaki etxekoa dut, eta betidanik ikusi izan dut deman. Gero, harri-jasotzen jardun zuen urteetan, plaza batetik bestera ibiltzen ginen bere atzetik. Senarra ere giro horretan ezagutu nuen, eta alaba ere harri-jasotzailea atera zaigu”, hasi da hizketan Etxabe. Herri kiroleetan sekula aritu gabea den arren, barru-barrutik ezagutzen du mundua. “Laguntzen-eta asko ibilitakoa naiz, ekitaldiak, erronkak eta halakoak antolatzen. Azken urteetan, Joseba Ostolatza Harri Eskolako idazkari lanetan ere banabil. Ondo ezagun ditut herri kirolak, bai”.

Urteetan pilatu duen esperientzia baliagarria izango zaio orain, Gipuzkoako Herri Kirol Federazioko presidente kargurako. “Ingurutik jaso nuen proposamena, eta aurrera egitea erabaki dut. Hasiera batean, ez zitzaidan burutik pasa ere egin, baina hainbat faktore tarteko, aukera suertatu da eta urratsa eman dut”, azaldu du presidentek.

Aurreneko emakumea izango da karguan. “Herri kiroleetan aritzen den jendea ez zen harritik, edo ez dut uste

Testua eta argazkiak: **Iñigo Gaiton.**





Zuzendaritza berriko kidea da Oliden ere, eta idi-demen esparruan ekarpena egiten saiatuko da.

'Luxarbe'ren lan "aparta"

Olidenek behin baino gehiagotan nabarmendu du *Luxarbek* egindako lana: "Hark ez du aitortuko, baina makina lan zikin egin eta trago txar pasatzea tokatu zaio; gehienetan, gainera, hitz onak beharrea txarrak entzuteko. Federazioa momentu oso zailean hartu zuen, eta bederatzi urtetan kristoren lana egin eta gero, egoera onean utzi du".

Bi elkarrizketatuentzat, "luxua" da hasi duten ziklo berrian *Luxarbe* ondoan izatea, hura ere zuzendaritzako kidea izango baita. "Ikaragarri egin du herri kirolen alde. Gaztetan aparteko kirolaria izan zen, eta, gero, plazari emanda bizi izan da. Erruz lan eginda, Gipuzkoako federazioa aurrera ateratzeko gaitasuna izan du, eta ate asko zabaldu ditu, udaletxeekin eta beste federazioekin ondo lan egiten asmatuz. Orain, gure ardura da hark egindakoari segida ematea", esan du Etxabek, parean duten erronka irudikatuz.

Tradizioa gaurkotzeko helburua

Herri kirolek tradizioa dute izateko arrazoi nagusia. Mundu zaharreko baserrietan eta plazetan sortu ziren kirol diziplina desberdinak, baserri giroko jendearen erronketatik sortu ere, kasu gehienetan. "Erronkek edo apustuek ez dute lehengo jendetzarik juntatzen, hori begi-bistakoa da. Garai batean, festetan-eta, Iñaki Perurena furgonetatik harriak jaisten ikuste hutsa ikuskizuna izaten zen, begira-begira egoten ginen ume koskor denak", gogoratu du Etxabek.

Gizartearekin batera bizi ohiturak ere aldatzen joan dira, eta Olidenean iritziz, zaila da "lau aizkora eta bi harrirekin" jendea erakartzea. "Lehen herrietan-eta ez zen entretenimendu handiegirik, eta herri kirolek ikusmin handia sortzen zuten. Orain,

behintzat, nire izena entzutean. Askok ezagutzen naute, eta badakite plazan orduak egindakoa naizela. Emakume izanagatik, ez naiz desberdin sentitu plazetan, nagusiki gizonezkoen mundua den arren", azaldu du.

Olidenezat, lanerako gaitasun handia du Etxabek, eta pertsona ezin hobea iruditzen zaio zuzendaritza berriko buru izateko. "Nire kasuan, Ainhoa egin zidan taldean sartzeko gonbita, eta bi arrazoiengatik egin dut aurrera: Ainhoa bera dagoelako, eta Jose Ignazio Saizar *Luxarbek* gurekin jarraituko duelako".

ordea, aisialdirako mila aukera ditugu guztiok, eta zaila da jendearen arreta lortzea”, azaldu du.

Zuzendaritza berriko kideek helburu argi bat dute buruan: tradizioari begirik galdu gabe, herri kirolak gaurkotzea, kirolari eta jarraitzaile kopuruak indarra har dezan. “Pentatloia eredu ona izan daiteke, hartu nahi dugun norabidea markatzeko. Txinparta piztu du gazteen artean, eta publiko aldetik ere jendea mugitu du”, dio Olidenekek. Horregatik da garrantzitsua, bere ustez, herri kirolak birpentsatzeko saiakera egitea.



Hasiberriei plaza hurreratu

Presidente berriaren esanetan, herri kirolak probatzeko gogoia dutenez aurreneko aukera federazioak izan behar du. “Lehen harreman hori eskuragarriagoa izatea lortu behar dugu, jende askok ez duelako bere kabuz aizkoran, adibidez, hasteko aukerarik. Federazioak aukera eman ondoren pertsona horrek gehiago sakondu nahiko balu, harremanetan jarriko genuke talde edo entrenatzailearen batekin”, azaldu du Etxabek. Berarentzat, garrantzitsua da jendeak herri kirolak ezagutzea eta probaren bat egitea, etorkizunean kirolari kopurua handiagoa izan dadin.

Aurreiritzien gainean lanean

Herri kirolen inguruan aurreiritzi eta uste oker asko dagoela uste dute bi elkarrizketatuek. Horietako asko, emakumeen gainean, Etxaberen esanetan. Alabarekin bizi izandako esperientziatik mintzo da: “Udanek, egia esan, hautsi ditu estereotipo batzuk. Hastapenetan, harri-jasotzen nola hasiko ote zen esaten ziguten, gorputzez hain fina izanik; bada, oraingoz behintzat, ez du inolako minik eduki. Horrez gain, plazan erabiltzen duen arropari ere bere izaera eman dio, eta loreen estanpatuekin ere aritu izan da altxaldiak egiten. Erakutsi du, posible dela plazara azkatzak edo ezpainak margotuta ateratzea, aurreiritzi guztien gainetik”.

Horregatik guztiagatik, emakumeek plazan toki gehiago izan dezaten lan egingo du zuzendaritza berriak. “Gaiari lotutako kanpaina txiki bat abiatuko dugu, aurreritziak astintzeko helburuarekin. Gainera, horiek ez daude emakumeei lotuta bakarrik. Gizonezkoen artean ere aldatzen joan da herri kirolean aritzen direnen profila. Lehen baserri girokoak ziren kirolari gehienak, salbuespenak egon arren. Orain kaletar ugari dabil plazetan, eta lehen ez bezala, askok goi mailako unibertsitate ikasketak ere badituzte”, bukatu du presidenteak. ■

Gogotsu heldu dio Etxabek presidente karguari.

**TRADIZIOARI BEGIRIK
KENDU GABE, HERRI
KIROLAK
GAURKOTZEKO
HELBURUA DUTE**

**EMAKUMEEK PLAZAN
TOKI GEHIAGO IZAN
DEZATEN LAN EGINGO
DU ZUZENDARITZA
BERRIAK**

PUBLIZITATEA

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA



Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com

PAKO IMAZ

pertsianak



PERTSIANAK

aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO



Portu

Erretegan - Jatetxea

Kazolitat, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g - AIA
943-89 44 34



Orioko Herri Ikastola

Herri Onurako Kooperatiba

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus

SU KIA

TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29



Sagasti LEIHOAK

Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orto

Kalitazteko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

Roberto Sagasti

www.sagastileihoak.com

Ttipi



Eusko Gudarien, 15
ORIO
943-25 96 95

ttapa

BODEGON

Sarasua



info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05



XIXARIO

Erretegia

Txuleta eta arrainak
parrillan

Eusko Gudarien kalea 2 · ORIO · 943-83 00 19

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36



Zaragueta IPI

HERRI ESKOLA 2-16

943-89 40 52
012137aa@hezkontza.net

Pasako da



XABIER ETXEBERRIA

Hau idazten ari naizen momentuan, etxean konfinatuta nago. Ez da ezer orijinala ezta berezia ere, honezkero gehienok pasako zineten sudur-zuloko zotza + egun batzuetarako klausuraren esperientziatik. Deserosotasunak ahalik eta pazientzia handienarekin eramaten ahalegintzea besterik ez da geratzen, “hau ere pasako da” errepikatuz haurrei, ea horrela geronek ere sinesten dugun. Pasatzea, hori baita koxka. Gaitza etorri den bezain azkar joatea. Ikusiko dugu.

Bitartean, ia ezinbestean, etxetik irteteko aukera genueneko kontuak gogoratzen nabil. Egoerak berak, ohartu gabe, *rastreadore* bihurtzen baitzaitu zu zeu ere, eta etxeko hormen artean sartuta egonagatik, azken egunetan emandako pausoak berregiten ematen dut denbora, imajinazio edo memoriaren bidez besterik ez bada ere.

Horri esker, Cuenca aldera joaten zait gogo sarritan. Oier Aranzabal lagun zarauztar-aiartua eta biok, On Kixote eta Santxo Panzaren gisara, Castilla La Manchako paraje haietan ibili baigara denbora asko ez dela. Athleticcek eskatuta erreportaje moduko podcast bat grabatzera joan ginen Minglanilla izeneko Cuencako herri galdu batera. Izan ere, Aiaren antzeko biztanle kopurua duen herri koxkor hau da, portzentaian, Espainian biztanleko athleticzale gehien duen lekua.

Bilboko taldearekiko zaletasun hau minglanillarrei nondik eta nola sortu zitzaien jakin nahi izatera, erreportajea denontzat eskuragarri dago podcast plataforma nagusietan. Entzuten baduzue, berehala konturatuko zarete futbolak, hain zuzen ere, garrantzia gutxi duela haietako askoren zaletasunean.

Valentin Balsasentzat bai behintzat. Valentin, “el hijo del Cojo Balsas”, horrela aurkeztu zigun bere burua Oier eta bioi, haren etxera elkarrizketa egitera iritsi ginenean. Ondo gogoan dut une hura. 94 urte ditu Valentinek eta peñako kide zaharrena da. Athleticzalea da, oso, eta errepublikanoa, erabat. Bere aita bezalaxe.

Lehenengo hitzetik, bere aitaz aritu zen. Prestatuta eraman genituen galderek ez zuten ezertarako balio izan. Valentinek ere prestatuta zeukan elkarrizketa. Horixe zen, hil aurretik, kontatu nahi zuena: mutil koskorra zela herriko hainbat pertsona nola fusilatzen zituzten ikusi zueneko, bere aita sei urtez preso eduki zutenekoa, amak eta biek sufritu zuten miseria, gosea, ezikusia... Guk, mikrofonoa jarri, esan behar zuena entzun eta eskerrak emanez alde egin genuen. Bere istorioa ez zela galduko hitz emanda.

Memoriaren zenbait *rastreadorek* jaso nahi ez badute ere, hau ere pasa baitzen. ■■■

**ETXETIK IRTETEKO
AUKERA GENUENeko
KONTUAK GOGORATZEN
NABIL, KONFINATUTA
NAGOEN BITARTEAN**

Haurren heziketa guztion ardura

COVID-19a hitza entzuten hasi ginenetik, nahasi samar sentitu izan gara askotan, eta informazio kontrastagarria bilatzeko eta iritzi anitzak partekatzeko beharra sentitu izan dugu. Egoera honek hezkuntza komunitatean izan duen eraginaren inguruan hausnarketa bultzatzeko eta, batez ere, hezkuntza komunitate aktibo, partehartzaile eta informatu bat eragiten laguntzeko gogoz antolatu genuen *Gure haurrak zainduz* hitzaldia Arraunetxen.

Nerea Mendizabalek berretsi egin zuen guraso moduan genuen pertzepzioa. Pertsonen arteko komunikazioa ardatz hartuta hitzaldi eta tailer ugari eskaintzen dituzenez, alor askotan aritzen da psikopedagogo ezaguna, eta

bere lan esperientzian, ikastetxeetan aurkitu ditu neurri murriztaile eta zorrotzenak.

Hori kontraesankorra da, ordea, Juanjo Martinez zirujauak hitzaldian baieztatu zuenarekin: haurrei gutxiago eragiten die COVID-19ak (gutxiago gaixotzen dira eta gaixotzen direnek sintoma arinagoak dituzte orokorrean helduek baino) eta gutxiago transmititzen dute. Datu horiek baieztatzen ditu, besteak beste, Espainiako Osasun Ministerioaren Osasun Alerta eta Emergentzien

**ELKARRI ENTZUTEKO
ETA IRITZIAK
TRUKATZEKO
ESPAZIOEN BEHARRA
ALDARRIKATZEN DUGU**

Koordinazio Zentroak, azaroaren 12an eguneratutako bere txosten tekniko-zientifikoan.

Ezarri diren neurriek zuzenean eragiten dute pertsonen arteko harremanetan eta sozializazioan. Oraindik hazte eta hezte-prozesuan dauden haur eta gazteei bereziki eragiten die, haien ikaskuntza-prozesua, jarrerak eta balioak guztiz baldintzatu ditzakeelako. Horrek ardura eta kezka sortzen digu. Haurraren heziketa komunitate guztiari dagokiola pentsatzen dugu eta, beraz, bizi dugun ezohiko egoera honetan, inoiz baino gehiago, hezkuntza-komunitate ahalbildu eta aktiboa behar dugu.

Kontuan eduki behar dugu, ordea, kolektibo ezberdinetan tentsioak pilatzen ari direla eta pertsonen zaintza erdigunean ez

HAUXE BAI JENEROA!



duen jendartean bizi garenez, bereziki larria dela esparru horietan diharduten pertsonen egunerokoa.

Bide honi ekiteko, beraz, barruak askatzeko beharra somatzen dugu. Bai ikasleek, bai gurasoek eta baita langileek ere, bizipenak eta emozioak azaleratzeko premia. Elkarki entzuteko eta iritziak trukatzeko espazioen beharra aldarrikatu nahi dugu.

Hego Euskal Herrian orain gutxi sortutako Hezkuntza Plazara! ekimenak ondo laburbildu ditu gure ezinegonak. Lehenengo eta behin, hezkuntza komunitateak (langileek, ikasleek eta gurasoek) egindako lan izugarria eta ahalegina aitortuz. Bigarrenik, salatuz eskoletara itzulera ez dela hezkuntza komunitatearen eta administrazioaren artean landu

eta adostu. Planifikaziorik ezaren, inprobisazioaren eta baliabide faltaren ondorioz, hezkuntza bermatzeko zailtasunak ditugu. Eta hirugarrenik, haurrak, gaztetxoak, langileak eta familiak erdigunean jartzearen beharra azpimarratuz.

Gure helburua haurren zaintza integrala (fisikoa, psikoemotionala eta soziala) ziurtatzea da. COVID-19aren testuinguruan hartutako neurriek ahalik eta gutxien eragitea nahi dugu haien garapen eta heziketan. Eta, zergatik ez, egoera hau baliatu curriculumetan jasota datozen pentsamendu kritikoa, elkar-zaintza, ardura eta autonomia bezalako balioak eta jarrerak lantzeko.

Egingo al dugu bidea elkarrekin? ■■■

NIRE HONETAN



AMAIA URBIETA ARRUTI

Sortu dira besteak

Euskal kantugintzaren frikiok nostalgiak jotzen gaitu gogor abenduan. Laboari eta Leteri orduan heldu zitzaaien azkena. Nire belaunaldikook beti ezagutu izan ditugu nostalgia kargaz abeslariok. Gure gurasoen gaztaroaren ikur dira, artean existitzen ez ginen garai baten soinu banda.

Lete hil zela hamar urte betetzen diren honetan, akordatzeko naiz nola aitaren ahotik jaso nituen haren letra gehienak, eta nola lagundu zidaten nire burua mundu zoro honetan kokatzeko. Apurka-apurka hasi nintzen hausnartzeko zer zen niretzat langile biren alaba izatea. Konturatu nintzen Euskal Herria ezin nuela maite, nahiz inon ezin nintekeen bizi harengandik aparte. Itsasoan urak handi izanda ere, murgiltzea erabaki nuen, eta herri zahar honek bide berritik ekin zezan lagundu, urduri.

Baina iragan denbora arrotza berriro itzuliko ez denez, jakin dugu bizitza garestia eta ezereza. Horixe da 2020 honek utzi digun aho zaporea. Ez dut uste izotz ondoko eguzkia magiaz bistaratuko denik. Eta ez, 2020koa ez da haizeak ifarraldetik joko duen azken abendua izango. Baina sinisten dut ezerezean amilduta hauts bihurtu aurretik sortuko direla besteak. ■■■





Etengabeko abentura

ALAITZ OLAIZOLA IDAZLEA

Ikastolako 4. mailako ikasleoi *Mikel eta Mikaela* liburua irakurri digute irakasleek. Alaitz Olaizola egilea gelara etorri zaigu eta galderatxo hauek egin dizkiogu: **Zeintzuk dira idaztearen alde onak eta txarrak?**

Nik alde on gehiago ikusten dizkiot, etengabeko abentura batean murgilduta zaudelako. Txar bat aipatzekotan, batzuetan ideiak falta izaten direla, eta idatzi behar duzun horrek presa badu, hortxe komeriak!

Idaztea erraza al da? Asko irakurri behar al da?

Ez nuke esango erraza edo zaila denik. Niretzat plazera da idaztea.

Irakurketa idazketaren oinarrian dagoela uste dut, bai. Beti ikasten da zerbait, eta besteen lanak irakurtzeak gure idazkera hobetzen laguntzen digu, seguru.

Asko gustatzen zaizu antzerkia idaztea. Zergatik?

Antzerkia egiten hasi ginenean ez genituen antzezteko lanak topatzen, eta aitzakia horrekin hasi nintzen idazten, eta hainbeste gustatu zitzaidan, ba gaur arte.

Zergatik dira azpeitiarrak hain antzerki zaleak?

Kar-kar-kar! Egia da azpeitiarrak oso antzerkizaleak garela... Herrian hainbat antzerki talde egon dira betidanik, eta nik uste dut

horrek eragin handia duela zaletasunean.

Koronabirusaren inguruan idaztea bururatu al zaizu?

COVID-19arekin bizitzea nahikoa lan bada! Momentuz ez daukat lerro bakar bat bera ere eskaintzeko asmorik.

Mikel eta Mikaela idazteko, zertan inspiratu zinen?

Desberdina den oro interesatzen zait, eta Mikel mutiko berezia bezain atsegina zela jakinik, horri bai, horri lerroak eta lerroak esakini nahi izan nizkion.

Mikel eta Mikaela pertsonaia bakarra al da? Lagunak al dira?

Mikel eta Mikaela pertsonaia bakarra dira, bai. Baina ba ote norberaren laguna izatea baino gauza hobetik? Horregatik, Mikel eta Mikaela lagun handiak dira.

MOTZEAN

Euskal idazle bat:

Bernardo Atxaga.

Liburu bat:

Euskaldun bat Marten, Iñaki Zubeldiarena.

Marraskilari bat:

Manuel Ortega.

Gona ala galtzak:

Galtzak. ■■■



Gabonak?

Aurten, COVID-19a dela eta, guk ezagutzen ditugun Gabonak ez dira ospatuko. Ezingo dugu kalera atera abestera, ezingo dugu familiarekin beti bezala egon, ez da Gabonetako poztasun hori antzemango, jendea kalera ere ia ez delako aterako. Gabonetan, normalean famili guztiak elkartzen dira, kanpoan bizi diren izeba-osaba, lehengusuak, etxera etortzen direlako; Gabonak denok elkarturik disfrutatzekeo dira. Gabonak behar diren bezala ez ospatzeak emozionalki kaltetzen bagaitu ere, beste arazo batzuk ere sortzen ditu, adibidez, ekonomikoak: saltoki eta jatetxeek urte osoko % 60 fakturatzen dute gutxi gorabehera Eguberrietan, baina 2020an desberdina izango dela dirudi, birusa dela eta. Iaz familiak milioi asko gastatu bazituzten, aurten diru hori jokoan dago.

COVID-19ak Gabonetan uste baino gehiago kaltetzen gaitu ikasleok ere, tonbola ezin izango delako egin, eta tonbolan jasotzen den dirua ezingo delako Ruandara bidali.

Ezin badugu familiarekin elkartu, tonbola egin, Ruandara dirua bidali, lagunekin atera, kantatu eta egun hauek elkarbanatu, Gabonak izango al dira?

Baina, bestalde, orain egin behar dugun guztia ondo zaintzea eta itzarotea da; beraz, pazientzia eskatu beharko Olentzerori. ■■■

Gabonetan, oreka aurkitzea gakoa



LIBE GARMENDIA

DIETISTA

COVID-19aren pandemiak sortutako zurrunbiloan bete-betea sartuta gauden honetan, Gabonetan pentsatzea eta zerbait antolatzea ez da erraza, oraindik inork ez baitaki egun seinatu horiek zer egoeratan igartzeko aukera izango dugun (azaroa amaieran ari naiz testua idazten). Ezberdinak izango direla gauza ziurra da. Hala ere, modu batera edo bestera, formatu txikian edo handian, etxe askotan ohiko usadioa ez da galduko, eta janean eta edariz inguratutako Gabonak ospatuko dira.

Izan ere, Gabonek elikagaien oparotasunarekin izugarritzko lotura dute. Bereziak edo egunerokoan ohikoak ez diren elikagaiek eta platerrek hartzen dute lekua bazkari eta afari horietan. Eta, hein batean, plater bereziak jarri eta horiez gozatzea ospakizun egunetan ederra da. Baina, hori guztia, gehiegikerian erori gabe egitea komeni da, noski. Oreka aurkitzea da gakoa.

Gehiegikeria horiek egun askotan mantentzen direnean, liseri aparatuko arazoak, pisu eta tentsio igoera, gluzemia mailaren igoera, nekea... sor daitezke. Horregatik, beste urteetako esperientzia gogora ekarri eta errepikatu ez dadin,

egun berezi hauek nola igaro eta zer sententziarekin amaitu nahi ditugun hausnartzera animatu nahi zaituztet.

Oreka aurkitzearen aldekoak bazarate, honako gomendio hauek lagungarriak izan daitezke: hasteko, otordu berezi horietara gose gehiegirekin ez iristea gomendatzen da. Modu horretan, lasaiago jateko aukera izango duzue. Bestetik, elikagai osasungarriak lehenestea komeni da. Hala ere, oso gustuko ditugun janariak egokienak ez izan arren, kantitate txikiagoan jan daitezke.

Gainera, plater ugari daudenean, aurrez menua jakinda, aukeraketa bat egitea egokia izan daiteke, edota bakoitzetik kantitate txikia hartzea; izan ere, jakiez gozatu ahal izateko ez da zertan kantitate handian kontsumitu behar. Horretarako, lasai jatea eta modu kontzientean murtxikatzea lagungarria izango da. Hala, betekadak izatea saihestu dezakezue.

Etxe askotan Gabonetako menua beti bera izaten da, familiako sukaldari trebeenak ere aldatu ezin duen horietakoa. Baina aldaketak egin nahi izanez gero, plater goxo eta osasungarri ugari prestatu daitezke. Ez dira zertan beti gantz edo azukretan aberatsak diren elikagaiak

aukeratu behar. Esaterako, barazkiz eginiko puding-a, barazkiz eta itsaskiz eginiko broxetak, barazkiz eginiko pateak, entsalada bereziak, frutaz eginiko mazedonia, konpota... aukera onak izan daitezke. Edota bietatik jar daiteke; plater bat arina eta bestea koipetsuagoa.

Barazkiz eta frutez osatutako platerrek zuntzetan aberatsak izanik, asebate sententzia ematen dute, eta plater energetikoei leku txikiagoa ematen laguntzen diete. Edariekien ere berdin jokatezea izango litzakeke egokiena. Azken finean, oreka aurkitzea da gakoa, otorduez gozatzea, baina sententzia onarekin amaituz.

Hala ere, Gabonetako lau otordu horietan jaten dugunak, orokorrean, ez digu horrenbeste eragiten, horiek otordu gutxi batzuk baitira. Horiei beste ospakizun gehiago elkartzeko zaizkionean, eta gainontzeko egunetan soberakinekin bueltaka gabiltzanean, orduan nabari dezake gorputzak gehiegizko lana. Horregatik, ez izan beldurrik ospakizun egunetako jatorduei (neurrian janean gero), gozatu patxadaz, eta gainontzeko egunetan, ohitura osasungarriak jarraitzea da garrantzitsua. Hor jarri behar dugu indarra, egunerokoan. ■■■



arkitektura www.xsarkitektura.com
herrikobarra, 11 behea • ZARAUTZ • 943-13 43 58

eraikuntza zerbitzuak
eraikinen mantenua
errehabilitazioak
proiektuak
txostenak
ITE-ak
obrak




ZINKU
ERAIKUNTZAK



- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*

Ander Zinkunegi
667 74 02 79



Sinergia
fisioterapia eta ikerkuntza

lbai ondo, 1 behea • ORIO
943-13 05 77 • 685 71 85 95
sinergiafisioterapia.com  

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirugia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesoaping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresioa (GAH), REDCORD.



BIYONA
BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu

 Geltoki bidea, 1 • ZARAUTZ •  943-13 50 16 • www.biyona.net

Euskaraldia, Euskaltegiko nire txokotik



TESTUA: AMAIA OLAZABAL

Azaroak 23 ditu gaur. Euskaraldiaren 4. eguna da eta, hasi zenetik, gaur ikusi ditut ikasle gehienak lehen aldiz. Aurretik, etxeko lanak ondo eginda ditugu: txapak banatuta, ariguneak osatuta... Gu ere prest gaude ariketa kolektibo sozialerako, eta ilusioz ekin diogu. Nire txokotxotik begira nago, eta aurretik pasatzen ari dira ikasleak, gehienak txapa jantzita, bakarren batek asteburuko txamarran ahaztu duela aipatu badit ere.

Hemen datoz, goizero bezala, txintxo-txintxo, beheko gelako ikasleak: Maria, Loli... Lehen aldiz hartuko dute parte Euskaraldian, aurreko edizioan ez baitzuten euskaraz ulertzeko adina gaitasunik, baina aurten poz-pozik eta oso harro erakusten dituzte beren *belarriprest* txapak. Ikasteko prozesuan aurrerapen nabaria egin dute eta txapa horiek beren garaikurra dira. Gainera, askok esaten digute *belarriprest* izateak euskara gehiago eta gehiagorekin erabiltzea ahalbidetzen diela; izan ere, orain jendeak badaki haiekin euskaraz egin dezakeela eta horrek asko laguntzen die; pixkanaka, euskara beren eguneroko bizitzako parte egiten ari dira.

Sarrerako kristaletik ikusi ditut igotzen Amanda, Pilar, Adama eta konpainia. Han doaz gora Irati irakaslearen laguntzaz. Hauek «euskara, al dia» bizi dute, horixe baita euskara berentzat, egunerokoa... Aurten hasi dira ikasten eta aditz, deklinabide eta hitz berri artean pasatzen dute eguna. Korapiloz betetako hari-mataza askatzen hasi dira hauek ere, etorkizunean arigune bilakatzeko.

Badoa eguna aurrera... Bukatu dira goizeko eskolak eta irakasleok ere tertulian gabiltza. Guretzat erraza da arigune izatea, euskara gure inguru naturala baita. Ikasle eta irakasleon benetako lana lau pareta hauetatik kanpo dago. Hor dugu benetako erronka: euskaltegietan euskara bultzatzen eta irakasten jarraituko dugu, baina euskara, benetan, egunero erabiliz ikasi eta zabalduko dugu, apurka-apurka: kalean, etxean...

**ASKOK ESATEN DUTE
'BELARRIPREST'
IZATEAK EUSKARA
GEHIAGO ERABILTZEA
AHALBIDETZEN DIELA**

Etxea aipatzen hasita, ez nuke ahaztu nahi gure etxeko *belarriprest*. Berak ariketa kolektibo honetan *belarriprest* rola hartu badu ere, ahobizi bizi-bizia dela baieztatu dezaket. Euskara txikitatik, etxetik, ez badator ere, denbora da euskaraz bizitzeko hautua egin zuela. Bere akats, aditz aldrebes eta hitz falta guztiekin, euskaraz bizitzeko esfortzua egiten du egunero-egunero. Zaitasunak baditu ere, tinko eusten dio euskarari eta —modu batera ez bada, bestera— euskaraz ekiten dio bere jardunari. Gure txikiari euskara etxean jasotzeko aukera ematen dio egunero; garai batean haren etxean eten zen haria hartu, lotu eta jarraipena ematea lortu du. Doakio hemendik nire eskerrik beroena kalean, baina, batez ere, gure etxean egiten duen esfortzu guztiagatik, jakin bai baitakit askotan ez dela erraza andereñoa etxean izatea.

Igorrentzat, Enekorentzat, Mariajerentzat, Susana eta Amaierentzat; zuretzat, niretzat... Euskaraldia bukatuko da, baina josi ditugun ariguneez hor jarraituko dute, euskarak hor jarraituko du; norbanakook hor jarraituko dugu ariguneez euskara josten. Guk, 15 egun hauetatik haratago, euskaraz jarraituko dugu. Ez dadila haria eten! ■

Maria Zaldua deitu du Espainiako senior mailako eskubaloï selekzioak



Maria Zaldua. A. LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Espainiako Senior mailako eskubaloï selekzioak *Objetivo*

2021 izeneko proiektua abiatu du, eta hamasei jokalaria deitu ditu egitasmo horretan parte hartzera, tartean Maria Zaldua. Orioko jokalaria Tenerife Salud taldean jokatzen du denboraldi hasieratik, eta aitortu du ezustean harrapatu duela selekzioko deialdiak. "Ez nuen espero. Selekzioko azken kontzentrazioan lesionatuta egon nintzen, eta uste nuen

bueltatzeo aukerak gutxituko zitzaizkidala. Oso gustura nago aukera izango dudalako senior mailako selekzioarekin entrenatzeko eta bertan parte hartzen duten jokalariaengandik ikasteko", azaldu zion KARKARARI kontzentrazioa abiatu aurretik.

Abuztuan joan zen Zaldua Kanarietara, Iberdrola Ligan jokatzen duen Tenerife Salud taldeak fitxatuta, eta "oso gustura eta kontentu" dagoela adierazi du: "Ederki egokitu naiz taldera eta azken hiru partidak irabazi ditugu, gainera".

Gozategi eta Carrera Espainiako ohorezko sofbol ligako eta Erreginaren Kopako txapeldun

Espainiako ohorezko sofbol ligako play off-ak jokatu ziren azaroaren 14an eta 15ean Madrilan (Espainia). Orioko Miren Gozategi eta Rebecka Carreraren Rivas C.B. taldeak Viladecansen aurka jokatu zuen norgehiagoka, eta Rivas izan zen garaile. Hala, 2020 urteko Espainiako ohorezko sofbol



Carrera, Gozategi eta Alvarez. UTZITAKOIA

ligako txapeldunak dira Gozategi eta Carrera.

Bestalde, hilaren 21ean 22an Erreginaren Kopa jokatu zuten, Batzelonako Viladecans herrian, Herrialde Katalanetan. Txapelketa horretan ohorezko mailako lehen lau taldeek parte hartu zuten: CBS Rivas, CB Viladecans, Dridma Rivas Sofbol Club eta CBS Sant Boik. Erreginaren Kopan ere Gozategiren eta Carreraren taldea nagusitu zen.

Carlos Nuñezek kontzertua emango du Aian hilaren 12an

Carlos Nuñez galiziarrek kontzertua emango du Aiako probalekuan. Antolatzaileen arabera, milioi bat disko baino gehiago saldu ditu Nuñezek, eta nazioartean erreferentia da zeltiar musikaren esparruan.

Abenduaren 12an emango du emanaldia musikariak,

larunbatarekin, 18:00etatik aurrera. Oholtza gainean lagun izango ditu Xurxo Nuñez, Pancho Alvarez eta Itsaso Elizagoien trikitilaria.

Sarrerak salgai daude Aiako Kultur Etxean, eta internet bidez ere erosteko aukera egongo da, Musikaze webgunean.



Carlos Nuñez. UTZITAKOIA

Zortzi milioi eurotik gorako aurrekontua izango du Orioko Udalak 2021ean

8.373.289 eurokoa da 2021eko udal aurrekontua. Lau udal taldeen ekarpenak biltzen ditu, eta aho batez onartu da. "Herritarren ongizateari lehentasuna ematea" izango du helburu, udalbatzarrean azaldu zutenez.

Hilaren 26ko udalbatzarrean onartu dituzte 2021eko udal aurrekontuak Orion, aho batez. Anuska Esnal alkateak udalbatzarrean azaldu zuen 2021eko aurrekontua prestatzerakoan udal talde guztiei ilusioa pizten zieten aurrekontuak egiten saiatu direla; "horrez gain, oso presente izan ditugu COVID-19ak herrian izango dituen ondorioak ere". Hala, Esnalek bi lan ildo azpimarratu zituen: aurrekontuak egiteko modua eta edukia. "Aurrekontu proposamena egin genuen, baina hasieratik ezinbestekoa iruditu zaigu alderdi guztien artean eztabaidatzea eta osatzea. Guztioi eskerrak eman nahi dizkizuet izan duzuen jarreragatik", esan zuen.

Aurrekontuen edukari dagokionez, nabarmendu zuen 2021eko udal aurrekontuetan pertsonen ongizatea izango dela lehentasuna. "2020rako laukoiztu egin genituen ongizate arloko partidak eta horrek eman digu aukera COVID-19ak sortutako egoerari aurre egiteko. 2021erako ere ongizate arloa indartu dugu". Bestetik, herria biziberritzeko

plan estrategikoak bildu nahi izan dituzte aurrekontuan.

EAJko bozeramaile Lourdes Salsamendik azaldu zuen, berriz, jeltzaleek aurrekontuen alde bozkatu dutela "Orioren alde lan egiteko konpromisoa" dutelako. Hala, aurrekontuan EAJ udal taldeak egindako ekarpenak biltzen direla ere zehaztu zuen: "Uste dugu baliagarriak izango direla oriotarren egunerokotasuna hobetzeko. Berdintasunetik, Orio irisgarri, inklusibo eta lehiakor bat eraikitzen jarraitu nahi dugu oriotar guztiontzat".

Iritzi berekoa da Ana Priede sozialista ere. "2021eko ongizateko partida guztiak handitu dira eta oso garrantzitsua da, ez duelako ezertarako balio kaleak apain eta ekipamendu onak izatea, herritarren oinarrizko beharrak asetu ezin badira". Inbertsioei dagokionez, Priedek nabarmendu zuen talde guztien ekarpenak biltzen dituela aurrekontuak, eta hori horrela izan dadin Anuska Esnal alkateak egindako lana nabarmendu zuen.

Orain taldeko bozeramaile Jose Angel Iparragirrek lehenik

eta behin Orain plataformako kideei eskerrak eman zizkien aurrekontua lantzerako orduan jaso duen babesagatik. Ogasun batzordean parte hartzen duten zinegotzien lana ere azpimarratu zuen: "Guretzat oso erraza izan da lan egitea, hasieratik proposatu ziren aurrekontuak onak ziren, eta egin genituen eskakizunak ere onartu egin dira, gainera", adierazi zuen.

2021eko UDAL AURREKONTUA ZENBAKITAN

Inbertsio errealak. Partida nagusiak:

- Hilerrria bide publikoa: 20.000 euro
- Inbertsioak bide publikoak: 136.000 euro
- Saneamendua San Nikolas kalea: 163.988 euro
- Zaraguetan inbertsioak: 80.000 euro
- Udal eraikinak: 47.500 euro
- Hiri altzariak: 43.206 euro
- Zerbitzuen funtzionamendu inbertsioak: 305.348 euro
- Hiri antolamenduko plan orokorra: 91.380 euro
- Gastuak izaera inmaterialeko inbertsioetan: 103.398 euro. ■■■



**Seguros
Bilbao**

Santi Barranco
Orioko Ordezkarria

Endaia Enparantza, 1 • ORIO • sbarranco@segurosbilbao.com
943-11 16 00 • 688 71 48 69





abenduak 1ean
irekiera

Eusko Gudari kalea 16, 2 behea • 660 98 91 91




ISPILUAN

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Zortzi dira.



Marraztu eta Margotu

Apaindu Gabonetako izeia. Izan zaitetz ausarta eta jar itzazu inork esperoko ez lituzkeen elementuak.



DOMINOAN

Bete itzazu lauki zuriak, domino zati honek zentzua izan dezan.


Begira! Horra katua neguari begira. Osatu lauki zuriak BEGIRA hitza osatzen duten letrak kontuan hartuta (B, E, G, I, R eta A). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



B	I	G	R
R		A	
	G		
		R	
	A		
G	R	B	A

Gauza gehienak hiru aldiz ageri dira. Gauzetako bat, aldiz, behin bakarrik ageri da. Margo ezazu.

Hiru, bi, bat

PUZZLEA

Puzzle hau osatzeko bederatzi pieza behar ditugu, baina hemen 12 daude. Zeintzuk dira txarrak?

Handitik txikira

Ordena itzazu izotzetako patin hauek, handienari 1 zenbakia emanez, eta txikienari 8.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eu/

IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Logela alokagai. Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tel.: 652 55 15 50. Garaje ibxia alokagai. 25 metro karratu ditu, eta sarr-bidea Palota kaletik. Kokapen oso ona, Niko tabernaren parean. Prezioa: 110 euro hilean. informazio gehiago: 661 87 88 76.

LAN BILA

Ume zaintzan lan egiteko prest dagoen neska oriotarra naiz. Tel.: 676 44 13 27.

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketara lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel.: 642 69 60 38.

Emakume venezuelar bat bere zerbitzuak eskaintzeko prest. Jende helduarekin ospitalean egoteko prest, egunez eta gauzez. Tel.: 688 61 04 52

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Tel.: 641 44 60 70.

Lan bila nabil etxe garbiketarako eta haurrak zein helduak zaintzeko. Orduka lan egiteko. Tel.: 643 66 23 89.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel.: 631 82 44 52.

Neska arduratsua lan bila dabil. Barneko zein kanpoko langile bezala adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Karlene. Tel.: 631 87 86 59.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 602 08 98 86.

Etxeko eta zaintza lanak egiteko prest nago. Esperientzia dut eta arduratsua naiz. Lanerako gogoz nago. Wendy. Tel.: 612 46 42 43.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samanda. Tel.: 643 85 78 54.

Neska euskalduna naiz eta lan bila nabil. Udarar umeak zaintzeko eta etxeko lanetan laguntzeko prest nago. Arduratsua naiz eta oso alai, eta umeekin esperientzia ere badaukat. Berehala lanean hasteko moduan naiz. Harremanetarako kontaktua: 656 73 51 03

Orion astelehenerik ostiralera haurrak (6-12 urte) zaintzeko bere burua eskaintzen du 17 urteko gazte arduratsua. Ekainaren 1etik aurrera hasteko aukera. Uztailaren 15a arte. Orduetgia: 9-13h (haurreko/eguneko 10€). Aukera ere bazkaltzen emateko, 9-15h (haurre-

ko-eguneko 15€). Gehienez 3 haurrez osatutako taldea. Julen. Tel.: 688 62 45 73.

Orion, babxilergoko lehen urtea amaitu berri duen gazteak bere burua eskaintzen du klase partikularrak emateko, bai ikasturte amaierari begira, baita udarako errefortzu gisa. 9-12 urte bitarte. Ekainaren 1ean hasteko aukera. Orduko 8€. Julen. Tel.: 688 62 45 73.

Aiako 17 urteko neska, Orioko baita Aiako umeak zaintzeko prest, ordutegi malguarekin. Haurrekin esperientzia duena. Saioa. Tel.: 672 19 49 94.

LAN ESKAINTZA

Langile baten bila gabiltza pertsona heldu baten zaintza eta etxeko lanak egiteko. Derrigorrezkoa da gidatzeko baimena eta paperak edukitzea. Tel.: 656 73 55 19.

ETXE BILA

Familia bat gara. Hiru gela dituen etxe baten bila gabiltza. Tel.: 661 33 11 13.

Neska oriotar bat etxea alokatu nahian. Tel.: 677 28 95 21.

Adineko emakumea, Orion etxe bixi baten bila nabil. Igogailua edukitzea beharrezkoa da edo eskailerik gabeko sarbidea. 659 78 54 38 zenbakian.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguru ordaindu du. 3.500 euro. Tel.: 657 77 45 11.

Volkswagen California T-5 salgai. Tel.: 670 42 09 66.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tel.: 623 17 95 37.

Garaje itxi bat erosi nahiko nuke kotxe bat sartzeko tokiarekin. Herri erdialdean edo goiko kalean. Tel.: 666 18 41 69.

Portugeseko ahozko mintza praktika hartu nahiko nuke ingelesaren edo euskararen truke. Tel.: 691 34 48 56.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan Orion edo inguruan. Tel.: 657 71 96 14.

Bigarren eskuko mountain bike bizikleta erosiko nuke. Interesatuek, idatzi edo deitu KARKARARA.

Duela bi aste berraitakoa galdu nuen Ibai Ondo auzotik ambulatiora bidean. Mesedez, norbaitek bilatzen badu, deitu hurrengo telefonora: 943-83 18 75. Juani.

Surf taula beltz bat galdu nuen Orioko Surf Taldearen lokalaren inguruan. Taula beltz kolorekoa da, eta ertzak kolore bizikoak ditu. Inork bilatu edo hartu badu, eskertuko nioke telefono honetara deitzea: 615 78 42 12. Aitor.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilgaria
1	04:40 eta 17:00	10:52 eta 23:00	○
2	05:12 eta 17:35	11:23 eta 23:33	○
3	05:46 eta 18:12	12:02	○
4	06:24 eta 18:53	00:09 eta 12:41	○
5	07:07 eta 19:41	00:50 eta 13:27	○
6	07:58 eta 20:38	01:38 eta 14:20	○
7	09:00 eta 21:48	02:35 eta 15:23	○
8	10:11 eta 23:03	03:43 eta 16:35	○
9	11:25	04:57 eta 17:45	○
10	00:12 eta 12:33	06:07 eta 18:48	○
11	01:11 eta 13:33	07:09 eta 19:45	○
12	02:05 eta 14:28	08:09 eta 20:36	○
13	02:45 eta 15:19	08:56 eta 21:24	○
14	03:41 eta 16:08	09:47 eta 22:10	○
15	04:28 eta 16:56	10:35 eta 22:56	○
16	05:13 eta 17:43	11:24 eta 23:41	○
17	05:59 eta 18:29	12:11	○
18	06:46 eta 19:16	00:27 eta 12:59	○
19	07:34 eta 20:04	01:14 eta 13:47	○
20	08:24 eta 20:57	02:03 eta 14:39	○
21	09:19 eta 21:58	02:57 eta 15:35	○
22	10:20 eta 23:06	03:59 eta 16:37	○
23	11:26	05:06 eta 17:43	○
24	00:13 eta 12:30	06:13 eta 18:44	○
25	01:10 eta 13:26	07:12 eta 19:36	○
26	01:57 eta 14:14	08:02 eta 20:20	○
27	02:37 eta 14:55	08:45 eta 20:59	○
28	03:14 eta 15:33	09:25 eta 21:34	○
29	03:49 eta 16:10	10:01 eta 22:09	○
30	04:24 eta 16:47	10:37 eta 22:44	○
31	04:59 eta 17:24	11:14 eta 23:21	○

FARMAZIAK-ABENDUA

ORIO

9, 18, 21, 28, 29 eta 30. LASA: Herriko plaza / 943-83 09 36

ZARAUTZ

3, 15 eta 31. ETXERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98

26 eta 27. ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83

4, 16 eta 22. GALLO: Zigorria kalea, 17 / 943-13 40 19

24 eta 25. GARMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19

5, 6, 7 eta 8. IRIARTE: Zinkunegi, Pilarbo Enea / 943-13 29 70

2, 10 eta 14. ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70

1. LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14

11, 17, 19, 20 eta 23. REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83

12 eta 13. ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94

Iragarkietarako bokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

ABENDUA

ORIOKO KULTUR AGENDA



LEIRE ZINKUNEGI
ipuin-kontalaria



ABENDUAK 1 · 18:00 · KULTUR ETXEAN · DOAN

JULEN ALONSO
& OINKARI dantza-taldea



ABENDUAK 5, LARUNBATA · 19:00 · KIROLDECIAN · 10€

BERTSO SAIOA



ABENDUAK 6 · 12:30 · KIROLDECIAN · DOAN

RUPER ORDORIKA
kantaldia



ABENDUAK 12, LARUNBATA · 19:00 · KIROLDECIAN · 10€

MIRIAM MENDOZA
ipuin-kontalaria



ABENDUAK 14 · 18:00 · KULTUR ETXEAN · DOAN

ZETAK
musika-taldea



ABENDUAK 19, LARUNBATA · 19:00 · KIROLDECIAN · 10€

URPEKARIAK
bertso-antzerkia haurrentzat



ABENDUAK 22 · 17:00 · ARRAUNETXEN · DOAN

ANARI
kantaldia



ABENDUAK 26, LARUNBATA · 19:00 · KIROLDECIAN · 10€

ISPIRIT
gospel-taldea



ABENDUAK 28 · 19:00 · ELIZAN · DOAN

"LOSERS"
antzeziana

GALTZAILAK

JON PLAZAOLA
AITZIBER GARMENDIA



ABENDUAK 30, ASTEAZKENA · 19:00 · ARRAUNETXEN · 10€

XABI SOLANO MAIZA
& Kimua dantza-kolektiboa




URTARRILAK 2, LARUNBATA · 19:00 · KIROLDECIAN · 10€

Puntua jarrita

Alaitz Roteta.
(Doinua: Agur sagar beltzeran/
la jarri gaituzte)

1

Eguberri hauetan opari izarra

nahiz eta egokitu
momentu kaxkarra
elkarrengandik urrun
ospatu beharra
oroitzearekin bat
datorkit zirrara
oparirik onena
zure irrifarra

2

Ez genuen espero
honta(ra) iristerik
pandemia ta birus
ez dugu besterik
hainbat lagun, ezagun
utzi du tristerik
zuretzat oparirik
badaukat oraindik...
Besarkada estu bat
bihotz-bihotzetik.

3

Eguberri jaiei
poztasuna gehituz
opari xumeenak
maitasun bihurtuz
guztiok elkarrekin
tinko borrokatuz
adio pandemia
ta adio birus
datorren urteari
atea zabalduz

Hurrengo bertsolaria:

Ainara Saizar.

Puntua:

Zer eskatzen diozu Urte
Berriari?

Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Alaitz Rotetari jarri dio puntua Mikel Fernandezek: "Eguberri hauetan opari izarra". Hurrengoari ere jarri dio puntua.



Saioa Perona Balda



AGINAGA

— ALTZARIAK —



Estrata 3. Pab. Errasti (Aginaga Auzoa) 20170 USURBIL
Tel./FAX-a: 943-36 93 59 · Mugikorra: 676 35 56 35
mueblesaguinaga@mueblesaguinaga.com